# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko irailaren 12a • IV. urtea

122. zenbakia • DOAN BANATZEKOA





**Goienka2a**
Kofradiek egun handia izango dute etzi Bergaran

**Barruan, zure herriko aldizkaria**

**BERGARA**
Gaur zabalduko dute gaztetxea, goitik behera berrituta /6

**IRITZIA: 'EUSKONEWS & MEDIA'-K BOST URTE BETE DITU /9**



**MARKEL IRIZAR**

*"Osasunak errespetatzen banau, bizikleta gainean zein naizen erakustea da nire nahia"* /10

## Mankomunitateko presidentea hil honen 24an aukeratuko dute

Irailaren 24an aukeratuko dute Mankomunitateko presidentea. EAJ-EAko kideren batek hartuko du lau urterako kargua. Honako hauek dira batzarrean parte hartuko duten koalizioko kideak: Patxi Basauri (Elgeta), Jose Angel Zabalo (Antzuola), Victoriano Gallastegi eta Jose Antonio Etxeberria (Bergara), Arritxu Oliden (Aretxabaleta), Juan Carlos Bengoa (Eskoriatza) eta Andoni Gartzia, Ernesto Murgiondo eta Jose Fernandez (Oñati).

Gainerako alderdien artean, berriz, Aralarrek bi izango ditu, Aretxabaletako bat (Xabier Sarasua) eta Bergarako beste bat (oraindik erabaki barik dago); alderdi sozialistak bakarra izango du (Paco Garcia); eta Gatzagako ordezkari independenteei dagokienez, Jose Ramon Perezek jardungo du. /4

ASTEKO GAIA: 'OPORRAK BAKEAN' PROGRAMAKO UMEEKIN EGON GARA /3

## Oporren ondoren, Saharara itzulera

Bueltatu dira etxera, gurean bi hilabete oporretan egon ondoren, Saharatik etorritako zortzi ume. Arrasaten eta Bergaran egon dira aurten, Fronte Polisarioak antolatutako Oporrak Bakean programaren eskutik. Eguneroko bizitzan ez dituzten erraztasunak eta aukerak gozatu ahal izan dituzte Debagoienean.

Joan aurretik, ordea, oporrak zelan pasatu dituzten kontatu digute. Taldearekin etorri zen Jalihina mutikoaren kasua ere ezagutu dugu: osasun arazoak direla-eta ibarrean gelditu da. /3

- *Saharako bederatzi ume egon dira aurten Debagoienean*
- *Taldeko ume bat, osasun arazoak direla-eta, geurean gelditu da*

**ARRASATE**

### XXI. mendeko Arrasateko irudiak, liburu batean

*Arrasate-Mondragon Irudiak* izeneko liburua aurkeztu du Arrasate Argitan kultura elkarteak oraingo astean Mondragoen. Batez ere, argazkiz osatuta dago liburua, eta irudien bidez Arrasate kanpoan ezagutzera ematea du helburu. /5

**DEBAGOIENA**

### 'Berria'-ren alde 200.000 euro batu dituzte ibarrean

*Berria* egunkariko akzioen salmenta aurrera doa, eta kontuak ateratzen hasita, esan dezakegu orain arte 200.000 eurotik gora batu direla, nahiz eta alde handia egon den herriz herri lortutako diru kopuruan. Oñati da diru gehien bildu duen herria. /4



ARGAZKI PRESS

## Aranzabal eta Astore protagonista

Eguaztenean aurkeztu zuten, Anoetan, Realak Europako Txapeldunen Ligan erabiliko duen elastiko berria. Ikusmin handia sortu zuen Arrasateko Astore markak Realarendako egin duen jantziak. Modelo lanetan, gainera, debagoiendar batek jardun zuen, txuri-urdinen kapitain Agustin Aranzabalek, hain justu ere. Realak Espainiako Ligan erabiltzen duen elastikoarekiko ezberdintasun handienak atzeko aldean daude: zenbakia zuriz agertzen da, hondo urdinaren gainean.






DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • ESKELAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • SAILKATUAK/20 • DENBORA-PASA/21



iKER

SUKALDE
ETA BAINU
ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

ARRASATE

FAGOR

Beste
inon baino
horma-armairu
eta ate
gehiago













Kruz
Gallastegi 9
**BERGARA**
943 76 38 10

GELAN

visel
ATEAK
banatzaile
ofiziala

# Gurean pasa dituzten oporren berri eman digute sahararrek

## Bederatzi ume egon dira ibarrean, eta bat luzaroago geratuko da

LEIRE KORTABARRIA

Joan den asteburuan itzuli ziren Saharara, euren etxera, uda osoan gure artean izan diren ume sahararrak. Bederatzi iritsi ziren eta zortzi bueltatu dira; izan ere, Arrasatera etorri zen mutiko batek, Jalihinak, osasun arazoak direla-eta geratu beharra izan du. Asteburuan, agur esateko askari bat izan zuten umeok, eta, hemengo bizimodura azkar moldatu ziren arren eta ondo pasatu duten arren, bazuten etxekoak berriro ikusteko gogoa. "Gurasoekin akordatzen dira, normala da. Bi hilabete pasatu dira-eta…", esaten zigun Idurrek, Arrasateko familia hartzaileetako ama batek.

Oporrak Bakean izeneko programaren eskutik etorri ziren neska-mutiko horiek uztail hasieran, eta programa horren helburua da "ume horiei aukera ematea beste leku batzuk bisita ditzaten eta, bide batez, osasun egoera hobean pasa ditzaten hilabete batzuk", azaltzen digu Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuko Jone Beitialarrangoitia teknikariak.

### "OSO ABERASGARRIA"

Beste urte batzuetan Debagoieneko hainbat herritan izan dira sahararrak, baina aurten Mondragoeko Udalak bakarrik hartu du parte Fronte Polisarioak eta Sahara Herriko Lagunak elkarteek antolatutako Oporrak Bakean programan. Lehen aldia izan da udal horrendako, eta, balorazioak datorren astean egingo dituzten arren, "lehen inpresioa oso positiboa izan da", diosku Beitialarrangoitiak. Elkarrizketatutako familiendako "esperientzia oso polita eta aberasgarria" izan da, eta espero dute datorren urtean ere ume horiek edo beharra duten beste batzuk ekartzea.



### NORDIN JATRI ZAMIN

- 9 urte.
- Bergaran egon da.

Irungo Udalaren bitartez ekarri zuen Bergarako familia batek 8 urteko Nordin Jatri. Bederatzigarren urtebetetzea hemen ospatu du Nordinek. Berarendako ez da lehen aldia izan Oporrak Bakean programan; izan ere, iaz Malagako familia batekin egon zen.

Gehien gustatu zaionagatik galdetzerakoan, erantzun zuen "itsasoa eta igerilekua" izan zirela; izan ere, ume hauendako, igeri egitea guztiz berria da. "Igeldoko su artifizialek eta barrakek" ere inpresio handia egin zioten Nordini. Janariari dagokionez, etxean jaten duen *cus-cus*aren falta sumatu zuela esan zigun. Datorren urtean berriro etorri nahiko lukeela ere esan zigun Nordinek.



### JAMILA BUZEID HAFDALA

- 6 urte.
- Arrasaten egon da.

Neskatxa isila eta oso formala da Jamila; hasieran, baita lotsati samarra ere. "Kosta egin zitzaion ohitzea, goibel samar zegoen etorri zenean, eta ez zuen ia ezer jan gura: fruta eta esnea besterik ez", diosku Idurrek, familia hartzailekoak. Bukaerarako, ordea, pozik eta lasai zegoen Jamila, eta jende berriarekin berba egiteko adore handiagoa zuen. "Askotan telefonoa ere hartzen zuen etxean", dio familiak.

Jamilari, Saharako beste umeei bezala, uretan ibiltzea gustatu zitzaion gehienbat. Bere lehen aldia izan da Oporrak Bakean programan. Saharako Aaiun-Dchera kanpalekuan bizi da, eta Arrasateko familiak espero du han bisitatzeko aukera izatea.



### JALIHINA MOHAMED ARRAIS

- 7 urte.
- Arrasaten geratuko da.

Jalihinarena kasu berezia da: etorri diren 9 sahararretatik, bera bakarrik geratu da ibarrean. Arrazoia da garuneko lesio bat duela, begiei eta gorputz erdiari eragiten diona, eta Fronte Polisarioak, Arrasateko Udalak eta Arrasaten hartu duen familiak berba egin ondoren, adostu dute Jalihina hemen geldituko dela, gutxienez, udazkenean ere. "Oftalmologoek gomendatzen dute, gutxienez, bi urtez gera dadila; baina tramiteak egiteke daude", dio Carmenek, familia hartzailekoak.

Orain, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskal Herriko Fronte Polisarioarekin tratuan dabiltza Udala eta familia, Jalihina hemen gera ahal izan dadin.



### KHALIFA JATRI MOHAMED AHMED

- 7 urte.
- Arrasaten egon da.

"Guztia gustatzen zait", esan zigun Khalifak, galdetu genionean. Itsasoa, zabuak, barrakak, Mondragoeko familiako Inesek prestatzen zizkion arrautza frijitu eta okela-xerra goxoak, izozkiak, hemen egin dituen lagunak… aipatu zizkigun. Etorri zen taldeko gainerako umeek bezalaxe, Khalifak ez zekien gaztelaniaz, eta ez zuen sekula sardexkarik edo aiztorik ikusi, baina, beste bidaikide batzuek ez bezala, ez zitzaion askorik kosta gauza berrietara ohitzea.

Khalifa gustura etorriko litzateke berriro. Hori bai, Galiziara joateko ikusmina du; izan ere, arreba bat hantxe egondakoa da, hura ere Oporrak Bakean programaren barne.

GUSTUKOENA, IGERILEKUA

### Jostailu artean baino gehiago, uretan ibiltzen ziren pozik umeok

**Hemen egon ziren bitartean, Agurne Juldain aisialdirako teknikaria kontratatu zuen Arrasateko Udalak saharar umeei lagun egiteko, baita familiendako erreferentzia moduan ere. Agurneren ardura zen eurendako ekintzak antolatzea, eta dio: "Gehien gustatzen zitzaiena zen uretan ibiltzea. Ez dira batere zorrotzak; akaso, bukaerarako, gehiago eskatzera ohituta zeuden, baina igerilekuan poz-pozik ibiltzen ziren".**

UDALEN PARTE-HARTZEA

### Fronte Polisarioak proposatzen die udalei parte hartzea

**Oporrak Bakean Saharako Fronte Polisarioak antolatutako ekintza da, eta urtero proposatzen die udalei parte hartzea. Udalek baietza emanez gero, erabakitzen dute zenbat ume har ditzakeen –bakoitzarendako diru kopuru bat jarrita–, eta, ikastetxeen bidez, familiak jakinaren gain jartzen ditu. Familiak aukeratzeko ez dira aparteko baldintzarik jartzen; normalean, izena ematen duten guztiek dute umea hartzeko modua.**

UMEAK ZELAN TRATATU

### Fronte Polisarioak gomendatu zien familiei "dena ez ematea"

**Saharako ume horiek egoera latzean bizi dira Aaiun eta Smarako errefuxiatu kanpalekuetan; hala ere, etortzen direnek, larritasunak larritasun, nahiko egoera onean daude. Hala ere, euren familiek ez dute ondasun material apartekorik emateko aukerarik. Hori dela-eta, gomendioa izaten da umeoi gauzak erostea, baina ez eskatzen duten guztia. "Seme-alabak balira bezala trata ditzatela", diote Frontekoek.**

FAMILIEN ARTEKO HARREMANA

### Umeak etxera bueltatuko diren arren, harremana izan dezakete

**Programa horretan eta antzekoetan parte hartzen duten umeek familiak dituzte, eta antolatzaileek argi uzten dute beti egonaldia bukatu bezain laster joan egingo direla. Hala ere, izan liteke umearen familiak eta familia hartzaileak harremana jarraitzea umea etxera itzuli ondoren. Arrasateko guraso batek esan zigun: "Gurako genuke bisita egitea eta ikustea zelan bizi diren. Lapiko bat ere bidali genien".**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko irailaren 12a



ARGAZKIAK: JULEN IRIONDO

Ibarretxe lehendakariak eta Gipuzkoako diputatu nagusiak hartu zituzten Arantzazuko elizako aurreko aldeko aulkiak.

# Herritar asko batu ziren Arantzazun, eguraldi txarra egin zuen arren

*Lehendakaria, agintari politikoak eta gotzaina ere han izan ziren*

JULEN IRIONDO/ IRATI AGIRREAZALDEGI

**Arantzazuko Amabirjinaren Eguna ospatzeko elizkizun berezia esan zuen Donostiako gotzainak, joan zen astelehenenan, Oñatiko santutegian. Bertan hainbat erakundetako ordezkariek eta herritar ugarik hartu zuten parte.**

Eguraldia lagun ez izan arren, jende ugari bildu zen irailaren 9an Arantzazuko Santutegian izan zen mezan. Oñatiarrak gehienak, baita ingurutik joandakoak ere; askok, gainera, oinez egin zuten Arantzazurako bidea. Baina herritarrez gain, zenbait erakundetako kideak ere izan ziren ospakizunean. Besteak beste, Oñatiko Udaleko kideak, Andoni Gartzia alkatea buru zutela, Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Juan Gonzalez de Txabarri, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Juan Jose Ibarretxe.

Eliza jendez gainezka egon zen, eta Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak, sermoian, honako mezu hau igorri zien bertaratutakoei: "Ekintza politikoaren ardatza etikak izan behar du. Ororen gainetik bizitza eskubidea errespetatu behar da, eta indarkeria mota guztiak gaitzetsi, baita botere desberdinek erabil dezaketena ere". Delituak egin dituztenen eskubideak errespetatu beharraz ere aritu zen Uriarte gotzaina.

Ibarretxe lehendakaria elizatik ateratzean, txaloz hartu zuen zenbait herritarrek, eta euskal presoen aldeko aldarriak oihukatu zituenik ere izan zen.



**PRESOEN EGOERARENGATIK PROTESTA**

**Elizkizunaren aurretik eta ostean, Etxeratek deitutako bilkuran 25 lagun izan ziren Euskal Presoak Euskal Herrira zioen pankartaren atzean, ertzainak parean zirela. Elkarretaratzearen helburua agintariei presoen egoera gogoraraztea izan zen.**

# Esperotakoa baino diru gehiago 'Berria'-ren alde

*Herri batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago*

I.A.

***Berria* egunkariko akzioen salmenta aurrera doa, eta kontuak ateratzen hasita ibarrean denetik egon da, herriz herri lortutako diru kopuruari dagokionez. Oñati da akzio bidez Debagoienean diru gehien bildu duen herria.**

Ibarreko zenbait herritan aurreikusitakoa baino diru gehiago bildu da. Joan den apirilean hasi zen *Berria*-ko akziodunak egiteko kanpaina, eta urtebete iraungo duen arren, Debagoieneko herri batzuetan hasieran ipinitako helburua gainditzea lortu dute. Kopurua zehazteko, herriko biztanle eta euskaldun kopurua hartu dira kontuan.

Debagoienean, Oñati izan da diru gehien lortu duen herria: 68.050 euro, hain zuzen ere. Gutxien, berriz, Leintz Gatzagan batu da.

Akziodunak egiteko, norbanakoengana ez ezik enpresetara ere jo dute ibarreko batzordeetako kideek, eta beste hainbat ekintza ere egin dira bildutako diruarekin akzioak erosteko, hala nola: kontzertuak, informazio mahaiak jarri..

Bestalde, *Berria*-k harpidetza kanpaina ere jarri zuen abian; ibarrean guztira 380 harpidedun daude, aurretik *Egunkaria*-ko harpidedun zirenak kontuan hartu barik. Arrasate herri handiena izanik, bertan daude harpidedun gehien: 118. Gatzagan, berriz, ez dago harpidedunik.

**Herriz herri batutakoa**

| | | |
|---|---|---|
| Arrasate | 66.250 € | %96 |
| Bergara | 30.850 € | %64 |
| Oñati | 68.050 € | %186 |
| Aretxabaleta | 19.300 € | %107 |
| Eskoriatza | 5.000 € | %14 |
| Antzuola | 6.550 € | %146 |
| Aramaio | 5.300 € | %135 |
| Elgeta | 2.850€ | %112 |
| Leintz Gatzaga | 100 € | %13 |
| **DEBAGOIENA** | **204.250 €** | **%104** |

# Hilaren 24an aukeratuko dute Mankomunitateko presidentea

*EAJ-EAko alkate batek ordezkatuko du Gallastegi*

I.A.

**Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan elkartuta, elkarteko hurrengo presidentea zein izango den erabakiko dute datorren irailaren 24an. Bilera berean Suradesako presidentea ere izendatuko dute.**

Hamabi ordezkarirekin gehiengoa izanik, EAJ-EA koalizioko kideren batek hartuko du datozen lau urteotarako Mankomunitateko presidente kargua. Oraindik ez dute argitu nor izango den burua, EAJ eta EA elkarrizketetan ari dira-eta. Honako hauek dira batzarrean parte hartuko duten koalizioko kideak: Patxi Basauri (Elgeta), Jose Angel Zabalo (Antzuola), Victoriano Gallastegi eta Jose Antonio Etxeberria (Bergara), Arritxu Oliden (Aretxabaleta), Juan Carlos Bengoa (Eskoriatza) eta Andoni Gartzia, Ernesto Murgiondo eta Jose Fernandez (Oñati).

Gainerako alderdiek ere izango dute ordezkaririk Mankomunitatean: hain zuzen ere, Aralarrek bi izango ditu, Aretxabaletako bat (Xabier Sarasua) eta Bergarako beste bat (oraindik erabaki gabe dagoena); alderdi sozialistak, bakarra (Paco Garcia); eta Gatzagako ordezkari independente Jose Ramon Perezek ere izango du lekua.

Guztira 16 lagunek osatzen dute Mankomunitatea, eta Debagoieneko herri guztiek dute ordezkaritza.

SAIOA
AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . DANTZA MODERNOA . GIMNASIA ZUZENGARRIA . FITNESS . MUSKULAZIOA . KARATEA . DEFENTSA PERTSONALA . MASAJE ZERBITZUA . SOLARIUMA . DIETETIKA AHOLKULARITZA . ESTETIKA . SAUNA
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 06:30 –22:00 Zapatuetan: 11:00 – 14:00
Kontzezino kalea (tunelean). ARRASATE. Tel.: 943 79 97 31. gimnsaioa@euskalnet.net

BETI ONA
SPINNING . AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . MUSKULAZIOA . FITNESS . GIMNASIA . KARATEA . WIN CHUNG . BOXEOA . SAUNA . DIETETIKA AHOLKULARITZA . ERREHABILITAZIOA . ZUTIKAKO ETA ETZANDAKO SOLARIUMAK
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 09:30 –22:00 Zapatuetan: 10:00 – 13:00
Uribarri etorbidea 12. ARRASATE. Tel.: 943 77 00 67. gimnsaioa@euskalnet.net

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

koma,
Erraz ikasten duzun zure hizkuntza akademia
IKASTARO BERRIAK URTE OSOAN
Ingelesa, frantsesa, alemaniera, italiera...
Apunta zaitez, ORAIN!
Olakua 7 behea • 20560 OÑATI
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com

## DEBAGOIENEAN LABUR

### XXI. mendeko Arrasateko irudiak batzen dituen liburua kaleratu dute lau hizkuntzatan

*Arrasate Mondragon Irudiak* izeneko liburua aurkeztu du Arrasate Argitan kultura elkarteak oraingo astean Mondragoen. Batez ere, argazkiz osatuta dago liburua, eta irudien bidez Arrasate kanpoan ezagutzera ematea du helburu. Hala, argazkien bidez Arrasateko arkitektura, lana, jendea, jaiak, natura, eta abar erakutsi dituzte. Argazki gehienak 2002 eta 2003. urte bitartekoak dira. Eta hainbat egileren idatziak ere badaude liburuan: besteak beste, Joxe Aranzabalek, Koldo Izagirrek, Antonio Álvarez-Solísek, Eduardo Manetek eta Selma Huxleyk idatzi dute. Argazki oinak, berriz, Juan Luis Azkaratek egin ditu. Horrez gain, esan beharra dago liburuko idatzi guztiak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daudela. Liburua dagoeneko salgai dago herriko liburu dendetan, 35 eurotan. Era berean, egileek aditzera eman zuten aurrerantzean beste proiektu batzuk egingo dituztela. /IKER BARANDIARAN

### Alzheimer gaixotasuna duten senitartekoen elkarteak telefonoa aldatu du Debagoienean

Alzheimer gaitza dutenen senitartekoen elkarteak, Afagik, Debagoienean duen ordezkaritzak telefonoa aldatu du. Ibarreko arduraduna lehengo bera da, hau da, Edurne Etxabe, baina telefono zenbakia aldatu egin dute. Aurrerantzean, 659 95 26 12 telefonora deitu beharko dute Denbagoieneko Afagi elkartearekin harremanetan jarri nahi dutenek. /ENEKO AZKARATE



### Hiru artzain debagoiendarri omenaldia

Joxe Bixente Etxabe, Eusebio Agirre eta Pedro Barrena artzainak omendu zituzten joan zen domekan Legazpin, Gipuzkoako Artzain Egunean. Pedro Barrena ezin izan zen Legazpin egon eta haren ordez semea joan zen. Bestalde, Arantzazuko Gomistegi baserriko Nikolas Segurolak ardi onenaren saria jaso zuen eta Udalako Jose Mari Plazaolak hirugarren postua eskuratu zuen, *Argi* txakurrarekin, Artzain Txakurren txapelketan. /E.A.

# Bergarako talde bat isilarazi zuten Errioxan, euskaraz abesteagatik

*Pertxa elkarteko koadrila bati gertatu zitzaion, Paganosko jatetxe baten*

ENEKO AZKARATE

**Euskaldun askok sarri egiten duten plana prestatu zuten Bergarako Pertxa elkartekoek joan zen zapatuan. Plan biribila: Arabako Errioxako ardo eta janari bikainekin gozatu eta lagun artean primeran pasatu.**

Upeltegi batera egin zuten bisita goizean. Elkartean bertan prestatutako bakailao eta gutti joan ziren hara. Hamaiketakoa egin ostean, Biasterin lau txikito hartu eta Paganos-era joan ziren bazkaltzera. "Sarritan joaten gara Errioxara eguna pasatzera, eta orain dela urte bi-edo toki berean egon ginen bazkaltzen. Bergarako musika bandako kide batzuk ere etorri ziren gurekin", diosku Pertxa elkarteko Pedro Egañak.

Oraingoan, baina, plana ez zen iragarrita zegoen bezala bete. Bazkalostean kantuan hasi ziren: "Lauzpabost kantu erdaraz lehenengo, eta euskaraz gero". Euskaraz kantatzen hasi zirenean, ordea, ondoko mahaian zegoen gizonezko bat hurbildu zitzaien eta ez kantatzeko eskatu zien, molestatzen zebiltzala adieraziz. "Bi bider etorri zen guregana, baina guk ez genion kasurik egin. Orduan, jabeari eskatu zion guri ez kantatzeko esateko eta halaxe egin zuen jabeak. Guk, berriz, ea non jartzen zuen ezin zitekeela abestu. Gizon hari guk euskaraz kantatzeak egin zion min, eta uste dut ezin daitekeela onartu. Euskal Herrian euskaraz kantatzeari uko egin behar badiogu, non egingo dugu ba?", dio Pedro Egañak. Bergarako lagun koadrilaren eta gizonezkoaren artean ika-mikak hasi ziren; tentsio uneak bizi izan ziren, eta ez ziren gutxigatik elkarri joka hasi. "Andre eta gizon joan ginelako; gizonezkook bakarrik joan izan bagina, seguru larriagoa izango zela. Jatetxeko jabeari erreklamazio orria eskatu genion eta salaketa ipini genuen".

# Jabi Lazkano eta Paulo Elkoro presoen aldeko ekimenak Bergaran

*Hainbat kale agerraldi eta jaialdi egingo dituzte San Martin jaietan*

MONIKA BELASTEGI

Abuztuaren 6an hamar urte bete zituen espetxean Jabi Lazkano preso bergararrak. Hori dela-eta, haren aldeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, manifestazioa egingo dute Bergarako San Martin plazatik abiatuta, 19:30ean. Ondoren, ekitaldia egingo dute. Gauean, 22:30ean, Su ta Gar taldearen kontzertua egongo da gaztetxean. Datorren egubakoitzean, bestalde, mendiko diapositiba emanaldia egongo da Pol-Polen; hilaren 21ean, berriz, mendi ibilaldia Irukurutzetara, eta gero bazkaria egongo da Artatsen.

**GELDIRIK EZIN EGON**

Era berean, Paulo Elkoro presoaren aldeko hainbat mobilizazio antolatu dituzte astebururako. Elkoro gose greban dago hilaren 1a ezkero, Alemaniatik estraditatua izan daitekeelaeta. Batetik, Alemaniako atzerri ministroari zuzendutako postalak atera dituzte. San Martin plazan eta tabernetan egongo dira eskuragarri. Horrez gain, eguaztenero elkarretaratzeak egingo dituzte, 19:30ean, San Martin plazan.

ILEAPAINDEGI MISTOA
virginia.L

Nire bezero zareten guztioi, zapatuan, hilaren 13an, egingo den ile apaindegiaren **inauguraziora gonbidatzen zaituztet.**
Zapatua, hilak 13, 12:00etatik 14:30era.
Lapurdi 3 (Zigorrolako etxe berrietan)
ARRASATE Tel.: 943 79 65 65


IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTRUA
– Oinetako gaixotasunak
– Azterketa biomekanikoa
– Kirol podologia
Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**

# KOLOREZ betetako eskaintza! Ez galdu aukera!



Pilot V-5 errotuladorea
V-ball Pilot errotuladorea
lehen 1,80€ orain 1,40€



Uniball VB-150 errotuladorea
lehen 1,80€ orain 1,35€



Stabilo Boss markatzailea
Stabilo Swing markatzailea
lehen 0,90€ orain 0,75€
lehen 1,20€ orain 0,95€



Enri t° 8° eskola agenda
Enri t° 4° eskola agenda
lehen 3,70€ orain 3,25€
lehen 4,30€ orain 3,90€



Casio Fx82 kalkulagailua
lehen 14,30€ orain 10,50€



Maped XL-308
konpasa
lehen 3,10€ orain 2,50€



Clairefontaine
azal gogorreko hiru koaderno
lehen 15,05€ orain 10,95€



Enri koadernoa
polipropilenozko 120 orri + 40 doan
lehen 5,80€ orain 4,75€



EXACLAIR
pack. 3 koaderno 2ren prezioan
lehen 12,00€ orain 8,00€



ENRI sailkatzailea
lehen 4,05€ orain 3,50€

TAMAYO PAPEL
DONOSTIA • ORDIZIA • ARRASATE

**TAMAYO J. URIARTE Paper denda**
Ferrerias 32. 20500 ARRASATE
943 77 03 80



# Izan zaitez gure aurkezle!

Goiena Telebistan ibarreko neska-mutiko protagonista izango garen saioa prestatzen ari gara, eta aurkezleak nahi ditugu gure saiorako. Interesa badaukazu, deitu telefono honetara:

**943 71 23 93**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*



ANTZUOLA

### Antzuola Herria Ikerketa Bekarako deialdia egin du Udalak

Herriko toponimia jaso eta finkatzea izango da bekaren aldi honetako helburua; herriko hainbat toki, ibar, mendi, baserri, eta abarren izenak jaso eta finkatzea, alegia. Lan hori egiteko hamabi hilabete izango ditu bekadunak, eta 12.020 euroko laguntza jasoko du. Hala, lan hori egiteko interesa dutenek goi mailako unibertsitate tituludunak izan behar dute. Curriculumarekin batera lanaren aurreproiektua aurkeztu beharko dute. Hain zuzen, urriaren 30ean bukatuko da eskaerak aurkezteko epea. /A.I.

ARAMAIO

### Areto futboleko jokalariak behar ditu herriko kirol elkarteak

Bañera Kirol Elkarteak jakinarazi digu jokalariak behar dituela aurtengo denboraldian areto futbolean jokatzeko. Hain zuzen ere, kadete mailako talderako (14-15 urtekoak) eta gazte mailako talderako (16-17 urtekoak) behar ditu. Talde bietan mutilek jokatzen dute.

Interesa duten gazteek kiroldegira deitu behar dute (945 44 53 35), 17:00etatik 21:00etara bitartean, eta Alfonsorengatik galdetu.

Bi talde horiez gain, Bañera Kirol Elkarteak nesken talde bat ere badu areto futbolean. /U.M.

ELGETA

### Gripearen aurkako txertaketa kanpaina astelehenean abian

Astelehenean, hilaren 15ean, gripearen aurkako txertaketa kanpaina hasiko du Osakidetzak, eta urriaren 31ra arte iraungo du. 65 urtetik gorakoei edo gaixotasun kronikoak dituztenei komeni zaie txertoa hartzea. Bakuna elgetako anbulatorioan hartu ahal izango da, praktikantearen ohiko ordutegian, baina aurrez ordua hartu beharko da. Horretarako, anbulatorioan bertan dauden orritxoak hartu edo Bergarako anbulatoriora (943 03 54 00) dei daiteke. /I.A.




MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Lanak bukatuta ez egon arren, gaur irekiko dute gaztetxea

Arotzeria eta margotze lanak besterik ez dira falta gaztetxea egokitzeko lanak guztiz bukatzeko. Gaztetxeko kideek aste honetarako lanak bukatuta egongo zirela uste bazuten ere, arotzerian atzerapena izan da eta horrek beste hamabost bat egun luzatuko ditu lanok. Hala ere, gaztetxeko kideek esan dute gaur, egubakoitza, zabalduko dutela San Martin jaiekin bat eginez, iragarrita zeukaten moduan. Gaztetxeak bi gune ditu: bata, ekitaldietarako aretoa; bestea, taberna. Azken horretan, hain justu, egin dituzte egokitze lan handienak: beheko solairuan tabernak segituko du, eta komunak egin dituzte. Horrez gain, lehen solairura igotzeko eskailerak eta igogailua jarri dituzte. Eta lehen solairuan aldagelak, Txapa Irratia, sukaldea eta tailerretarako gelak. /M.B.

OÑATI

## Herria ezagutzeko antolatutako ibilaldiek erantzun ona izan dute

Etzi, domeka, egingo dute Natur Eskolak eta Turismo Bulegoak lankidetzan antolatutako ibilaldietako azkena. Arantzazu erreka eta kobazuloak ikustera joango dira domekako irteera horretan: iturburuak, urzuloak eta Gesaltzako kobazuloa bisitatuko dituzte, besteak beste. Hiruzpalau orduko ibilaldia izango da, edozeinek egiteko modukoa.

#### EKAINETIK IRAILERA, HAMAIKA IBILBIDE

Ekaineko lehen asteburuan jarri zuten abian ekimen hori Turismo Bulegoak eta Natur Eskolak. Ekimen horren helburua izan da, Oñatiko hirigunea bisitatzeaz gain, inguruko auzo eta mendi aldea ezagutzera ematea Oñati bisitatzera etortzen den jendeari, baita oñatiarrei eurei ere. Horretarako, hainbat ibilaldi antolatu zituzten: hegazti koloniak ezagutzeko, ikazkintza, artzaintza eta beste hainbat ogibide zahar ezagutzeko edo, beste barik, inguruko mendiak ezagutzeko ibilaldiak, hain zuzen ere.

Turismo Bulegoko arduradunak oso pozik azaldu dira ekimen berri horrek izan duen erantzunarekin. Ibilaldi horietan parte hartu duten gehienak euskaldunak izan dira, gipuzkoarrak, batik bat; baina kanpotarrik ere izan da: galiziarrak, madrildarrak, australiarrak...

Bestalde, Turismo Bulegoan, ekainetik abuztura arte, 400 bat kontsulta jaso dituzte, eta 1.800 bat lagunek hartu dute parte bisitaldi gidatuetan. /A.I.

**Zertzelada**

**Ekainetik hona hainbat ibilaldi antolatu dituzte Turismo Bulegoak eta Natur Eskolak; abuztura arte 97 bat lagunek hartu dute parte.**

ARRASATE

## Etzi, arrasatearrek erromesaldia egingo dute Arantzazura

Arantzazuko Amaren egunaren osteko aurreneko domekan hitzordua dute arrasatearrek erromesaldia egiteko. Aurtengoa prestatuta dago. Etzi, domekan, izango da. Eta, urtero moduan, automobilez, autobusez edo oinez parte hartuko dute erromesek.

Edozelan ere, erromes guztiak Gesaltzan elkartuko dira, 10:00etan. Eta handik, frantziskotarrekin batera hartuko dute Arantzazurako bidea, otoitzean.

11:00ak aldera iritsiko dira santutegira. Han, besteak beste, Arrasateko parroko Jenaro Lekuonak meza esango du.

Antolatzaileek partehartze handia espero dute, bestetan moduan. /U.M.



ARRASATE PRESS

**Arrasatear ugarik parte hartu ohi du Arantzazuko erromesaldian.**

ARETXABALETA

### Jesus Ortiz de Urbinak eta Pablo Letonak osatu dute abade taldea

Jesus Ortiz de Urbinak eta Pablo Letonak beteko dute Xabier Gomez parrokoak eta Jose Angel Agirre abadeak utzitako hutsunea. Jesus Ortiz de Urbina Zumarragako abade laguntzailea izan da, eta orain Eskoriatzako eta Aretxabaletako parrokoa izango da. Pablo Letonak, berriz, abade laguntzaile lanak beteko ditu Bitoriano Aranburu eta Angel Ipiña biatoristarekin batera. Hortaz, abade taldea osatuta geratu da. Kurtso ofiziala hasten denean, urri inguruan, aldaketak izango dira mezen ordutegian. /M.A.

ESKORIATZA

### Agur beroa egin zioten herritarrek Xabier Gomez parrokoari

Dagoeneko Salamancan izango da Xabier Gomez abade gaztea. Hura izan da sei urtean Eskoriatzako parrokoa, eta orain, fraide izateko erabakia hartu du. Joan aurretik, baina, agur beroa egin gura izan zioten herritarrek. Joan Maria Uriarte Donostiako Elizbarrutiko gotzaina eta inguruko abadeak izan zituen lagun joan zen domekan agur eukaristian, eta bukatu ostean, 214 lagun batu ziren frontoian, Xabierren omenezko bazkarian. Hainbat opari jaso zituen, eta herriko bertsolariek egin zioten azken agurra. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

### Granadako Avila Rojas taldea izan zen nagusi 25. lasterketan

Euskal Herriko taldeez gain, Madrildik eta Granadatik etorritako beste talde bik hartu zuten parte Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketan. Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban barrena ibili zen lasterketan giro polita egon zen eta jende asko batu zen. Balorazioa egiterakoan, antolatzaileak pozik azaldu dira. Granadako Avila Rojas taldeko Javier Ramírez txirrindularia izan zen garaile. Oso maila ona erakutsi zuten andaluziarrek; sari gehientsuenak eskuratu zituzten. /A.G.

# Zabalik



ARANTZA
OZAETA

## Hitzak

**Aldatuaz doaz garaiak eta aldatuaz, haiekin, hizkuntzak eta hitzak. Hizkuntza batzuek arrain handiarena egiten dute, eta hizkuntza txikiak jaten dituzte. Geroz eta handiagoak dira hizkuntza handiak eta geroz eta gutxiago hizkuntza txikiak. Datuak hotzikarak ematekoak dira: munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik soilik heren bat iritsiko omen da XXI. mende honen hondarrera.**

**Datuak erraz irensten ditugu. Datuak erraz digeritzen ditugu. Zenbakiak hotzak dira, eta ez dute hunkitzen, lar globalak dira, ez dugu galtzeko bidean dagoen hizkuntza batean pentsatzen, esaterako, Kolonbia edo Kanadakoren bat, beren hiztunetan, eguneroko tragedia txikietan.**

**Hizkuntzek lan handia egiten dute horrela galtzen uzteko. Esaten zuen Sokratesek hitza langilerik onena zela konbentzitzeko. Irail honetan, opor ostean, hitz ezagunak topatu ditugu berriz ere egunkarietan: hainbat etorkin "ilegal" iritsi da kanariar irletara. Politikari famatu bat hil da bizitza "askatasunaren" alde eman eta gero. Fermin Muguruza "hilketak bultzatzen" dituelako gelditu da kontzerturik eman gabe Murtzian, etab. Gaur egun, bistan da, inoiz baino balio estrategiko handiagoa duen lurraldea bihurtu da hizkuntza, eta ezin da munduan inperiorik garatu, ez estaturik, ez talde armaturik, hiztegia ondo erabili ezean. Zer dira Askatasuna, zer Aurrerapena, Justizia, Pluraltasuna, Maitasuna?**

**Hitzak edozein gauza esateko erabiltzen dira geroz eta gehiago, geroz eta itsaso zabalagoak dira, Aliceren lurralde miresgarrian baikinan. Hain da horrela, Bush jainkoa deabru eta deabrua jainko bihurtzeko gai dela hitzari eta *mass mediei* esker. Erne ibili, bizi garen garaiotan, nork zelan erabiltzen dituen hitzak.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Faxa

## Arrasateko Udaleko Osoko Bilkuretan erdaraz?

Maiatzaren 25eko hauteskundeek, maila politikoan hain liskartsuak izan zirenak, udalen eraketa berria ekarri ziguten. Hori dela-eta, dagoeneko hainbat zinegotzi berri ditugu Arrasateko udaletxean eta beste talde politiko batzuk agintean.

Euskaldunon eskubideak bermatzeko, EHEk zinegotzi euskaldunak egotearen garrantzia azpimarratu izan du beti eta horrela jakinarazi izan zaie alderdi desberdinei behin baino gehiagotan.

Egia esan, alderdiei eskatutako euskararen aldeko esfortzu hori, alderdi gutxi batzuk bete dute. Hala ere, Arrasaten, orain arte zinegotzi erdaldunak egon izan badira ere, Udaleko pleno guzti-guztien funtzionamendua euskaraz izan da. Aitortu behar da ere, hori horrela izan dela orain arteko udalbatzak euskararen aldeko oso jarrera positiboa izan duelako, bai udaleko barne funtzionamenduan zein herri osorako euskararen aldekoan, eta horri esker euskararen normalkuntzaren bidean aurrera pauso garrantzitsuak lortu direla.

Udalbatza berriak dagoeneko pleno bat egin du, uztailaren 21ekoa, eta hara non gure harridura Udalbatza aldaketak hizkuntza aldaketa ekarri duela ikustean. Gauzak horrela, hainbat kezka etorri zaizkigu burura: hemendik aurrerako pleno guztiak ere erdaraz izango dira? Hizkuntza aldaketak jarrera aldaketa ekarriko du? Udalaren barne funtzionamenduan igarriko da? Eta herrian? Azken baten, euskaldunon eskubideak gazteleraz defendatu behar dituzue?.

Arrasate euskararen normalkuntzaren bidean hainbat gauzatan aitzindari izan bada herri honetako zenbait pertsona eta elkarteren konpromisoari esker izan da, Udalarena barne. Horrela jarraitu dezala!

ARRASATEKO EHE
Arrasate

## Valdemoroko isolamendutik...

Uztailaren 31n, goizeko 8:20an ertzainek atxilotu ninduten etxetik irten eta korrika egitera nindoala. Atxiloketa Audientzia Nazionalak agindu zuela esan zidaten eta nengoen bezala, praka motzetan, eraman ninduten nahiz eta behin eta berriz esan arropak hartzen uzteko.

Bi hilabete eta erdi lehenago, maiatzaren 16an, atera ninduten espetxetik ezarritako zigorra oso-osorik bete ondoren. Zigor honetan sartzen ziren 1978tik 1983ra arteko ekintza batzuk. Ez dakit zehazki guztira zenbat urtetako zigorra jaso nuen; badakit, halere, garai hartako legedia aplikatuta, jaso nezakeen zigorrik handiena jarri zidatela, hau da: 30 urteko kartzela zigorra. Honek esan nahi du zigorra 50 urtekoa ala 2000 urtekoa izan, adibidez, berdin-berdin diola, 30 urteko espetxe-zigorra baitzen garai hartako gehienezko kartzela-zigorra.

Orain 1981eko sumario bat zabaldu dute eta hori dela eta espetxeratu naute. Zergatik ez ninduten, baina, bere garaian epaitu? Izan ere, esan dudan eran, orduan epaitu banindute ezin izango baininduten 30 urtetik gorako espetxealdira kondenatu; eta zigor hori beteta daukat nik dagoeneko. Audientzia Nazionala legez kanpo jokatzen ari da eta ederki asko daki hori gainera.

Hasieran guztiok pentsatu genuen "huts" bat egin zutela baina berehala kaleratu beharko nindutela. Gero hasi ginen konturatzen ez zela "huts" bat izan eta guztia ondo prestatuta zutela ni ahalik eta denboraldirik luzeenean espetxean edukitzeko. Garzon epaileak, Fungariño fiskalak hala eskatuta, agindu zuen ni atxilotzea, baina agindua eman bezain laster oporretan joan zen. Audientzia Nazionalera eraman nindutenean Andreu epailea zegoen guardian. Berak agindu zuen ni espetxeratzeko, baina hau ere oporretan joan zen hurrengo egunean. Geroztik eskuak garbitu dituzte guztiek eta ni hemen naukate Valdemoroko isolamenduan.

Zuzenbidean aditua den jende askori azaldu diogu gertatutakoa eta guztiak bat etorri dira: nirekin egin dutena astakeria handia izateaz gain, legez kanpokoa da erabat. Baina hauei bost axola zaie "legea", nahiz eta beren legea izan; beraz *Justizia* hitz potoloari buruz zer esan nezake...

Lehen aldiz gertatzen da halako bat estatu espainiarrean. Etsaia ezagututa harritu ez gaitu harritzen; izan ere, hauek, gu izorratzeko, etengabe ari baitira bide berrien bila. Ez dago esan beharrik, oraingoan ondo ateratzen baldin bazaie, jarraian beste lagun batzuekin saiatuko direla. Beraz, behin eta berriz galdera bakarra etortzen zait burura: espetxetik zigorra osoosorik beteta ateratzen garenoi zein irtenbide uzten digute?

Lehen aldiz espetxera sartu nindutenean, bertan ETAkoak bakarrik aurkitu nituen. Oraingo honetan kale borrokakoak, Segikoak, Haikakoak, Askatasunakoak, *Euskaldunon Egunkaria*-koak, Udalbiltzakoak eta abarretakoak aurkitu ditut. Oso zabala da lagina, baina, zoritxarrez, oraindik beste arlo batzuetan ari direnei ere tokatuko zaie espetxea ezagutzea; ni gutxienez horretan nago. Noiz erantzungo dugu, gure osotasunean, herri erasotua garen aldetik? Garaia dela uste dut...

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet ni atxilotu ondoren zuen haserrea eta elkartasuna adierazi duzuen/didazuen guzti-guztioi. Lasai asko, ezer egin gabe, geratu/geratzen zareten herritarroi ere esan nahi dizuet zertxobait: noizbait espainolen legea aplikatuko zaizuen zoritxarrean aurkitzen bazarete (munduak itzuli asko ematen ditu), guk kalean salatuko dugu eta gure haserrea agerian utzi; honetan ez izan zalantzarik.

Bai neuk eta baita zeuek ere, beraz, inoiz baino tinkoago: aurrera bolie!

ENRIKE LETONA BITERI
Valdemoro

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Kolaborazioa

## Irailak 11 (1973)

Gaur, lerro batzuk oroitzapenerako. 1973ko irailak 11. Santiagoko (Txile) Moneta Jauregia militar kolpistek inguratuta zegoen. 09:03 ziren eta Salvador Allende presidenteak azken berbak egin zituen jauregi barrutik, Radio Magallanesen bidez: "Indarra daukate, zapaldu egingo gaituzte, baina prozesu sozialak ez dira geldituko ez hilketekin ezta indarrarekin ere. Historia geurea da eta herriek egiten dute. Ene aberriko langileok, fedea daukat Txilen eta Txileren etorkizunean. Beste gizon batzuek gaindituko dute bizi izaten ari garen une ilun eta mingots hau, traizioa gailendu nahi duen une hau. Jakin ezazue berandu baino lehen zumardi handiak zabalduko direla, eta bertatik gizon librea pasatuko da, gizarte hobea eraikitzeko. Gora, Txile! Gora, herria! Gora, langileak! Hauek dira nire azken berbak, eta seguru nago nire sakrifizioa ez dela alferrikakoa izango. Ziur nago, behintzat, azpijokoa, koldarkeria eta traizioa zigortuko dituen lezio morala izango dela".

Hala, Unidad Popularreko gobernua derrokatuta, Salvador Allende hil egin zuten. Gero, isiltasuna. Orduan hasi zen hamazazpi urte iraun zuen diktadura, estatu-terrorea. Hasierako hilabeteetan, hildakoak 15.000 baino gehiago izan ziren eta ondorengo errepresioan 1.500 gehiago desagertu ziren, betiere kalkulu moderatua eginda. Hiru hamarkada bete dira orain Salvador Allende hil zenetik, Mendebalean hauteskunde batzuetan demokratikoki hautatu zuten lehen hautagai marxista. Haren pauso eta ekintza politikoen oinarri beti izan ziren umilek, babesgabeek, pariek, esplotatuek bizimodu duina eraman ahal izatea. Herrialdeak behar zituen aldaketa handien oinarriak ipini zituen, bere bihotzeko Txile. Baina kanpoko eta barruko konplot batek bere programa aurrera eramatea zapuztu zuen, Txileko herriak berak eskatu zion programa, hain zuzen. Herrialde baten garapen soziala geratzeko eta lortutako konkista sozialak deuseztatzeko egindako kolpe militarra. Haren krimena: gizarte hobea eraiki gura izatea. Mario Benedettik idatzi zuen: "Herria bera zen gizon bat hiltzeko / herririk gabe geratu behar izan zuten (Allenderen poema). Gaur, memoria historikoa geratzen zaigu, betiko gorde behar duguna, inoiz galdu behar ez duguna. Eta gogoratu beti historia garaileek idazten dutela, ez garaituek.

Agian ez dut berbarik topatuko bukatzeko; hortaz, Gabriel Garcia Marquezen berba batzuk nire –konpartitu, behintzat– egingo ditut: "Drama Txilen gertatu zen, txiletarren kalterako, baina historiara pasatu behar du garai hartako gizon guztioi erremediorik gabe gertatu zitzaigun zerbait bezala, gure bizitzetan geratuko dena betiko.

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA
EZKER BATUKO ZINEGOTZIA ARRASATEN
Arrasate

Eusko Ikaskuntzaren aldizkari elektronikoak, *Euskonews & Media*-k, bost urte bete ditu. Aldizkari hau aitzindaria da Internet bidez kultura, gizarte eta zientzia alorreko gaiak zabaltzen. Bosgarren urteurrena ospatzeko, hainbat berrikuntza egin dituzte. Aurrerantzean, diseinu berritua eta beste hainbat prestazio izango dituzte irakurleek. 1998a ezkero, Eusko Ikaskuntzaren astekari elektroniko honek 1.300 artikulu eta 250 elkarrizketa argitaratu ditu. Egun, 6.000 harpidedun eta 25.000 irakurle ditu.

'EUSKONEWS': BOST URTE

# Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen aldizkari elektronikoak 1.300 artikulu eta 250 elkarrizketa argitaratu ditu bost urtean

Korrika eta presaka idazten ari naiz lerro hauek, nire kasuan ezohikoa dena, izan ere gai bati ekin aurretik ongi hausnartuta edukitzen dut edukia. Baina dudan epea laburra den arren, egin didaten eskariari erantzun nahi diodalako eta, gainera, gaia freskoa dudalako, hona hemen ordenadorearen aurrean jarrita, *Euskonews & Media*, koordinatzen dudan aldizkari elektronikoari buruz zenbait burutapen izkiriatzen.



JOSE MARI
VELEZ DE MENDIZABAL
Eusko Ikaskuntzako gerentea

Bost urte bete du aste honetan Eusko Ikaskuntzatik argitaratzen dugun astekari horrek eta osasunez tinko dagoela azpimarratu behar dut. Nora eramango gintuen ez genekien abenturari heldu gintzaizkion, ez genuen pentsatzen —ezta urrik ere!— lortu ditugun mailak erdietsiko genituenik. Eguneroko ustekabe positiboen katea gertatu da lehen bosturteko hau, ahaleginak merezi izan duela erakutsi diguna. Ez da marka makala asteko hogeita bost mila irakurle izatea. Eta *Euskonews & Media*-k maila hori lortu du aurten.

Aldizkariak euskal kulturari eta zientziari eskaintzen dizkio bere orri digitalak eta lantegiari ekin genionetik garbi geratu da euskal kultura eta teknologia berriak zeharo ongi joan daitezkeela uztartuta. Komunikazioko teknologiak daraman abiadura esponentzialari jarraitu ahal izateko erne egon behar da, bidean ahituta geratuko ez bagara. Azpiegitura teknologiko apal baina eraginkor batekin Eusko Ikaskuntzak asmatu egin du informazioaren autopistako bideak jorratzen. Orain arte, bederen.

> *"Garbi geratu da euskal kultura eta teknologia berriak zeharo ongi joan daitezkeela uztartuta"*

> *"Euskarak, bizirik irauteko, beste hizkuntza handietarako itzulpena behar du"*

Bost urteko lehen aldia amaitu da eta orain berri baten atartean gaude. Berrikuntzak ere ekarriko ditu *Euskonews & Media*-k. Garrantzitsuena, batere zalantzarik gabe, asteko edukia aurrerantzean zuzen zuzenean datu base batetik eskainiko dela da. Eusko Ikaskuntzak Interneterako euskal kulturaren gain prestatu duen makrobasea izango du abiapuntu aldizkariak eta horrek egundoko abantaila eskaintzen dio irakurleari, irakurtzen ari dena —automatikoki— gai berdintsua jorratu duten beste artikulu, idazki, argazki, soinu, eta erreferentziak hurbil baitiezazkioke.

Gure aldizkariaren edukia, beraz, aberasten joango da, aurrerapen geometrikoan. Eta irakurlearen jakin minari askozaz era beteago batez erantzun ahal izango zaio. Bitxikeria gisa, baina teknologiek —ongi erabilita— gure kulturarengatik egin dezaketena ideia egin dezagun, diodan, aldizkariaren asteroko ekarpena entzun ere gin ahal izango dela, software apropos bat aplikatuta.

Nork iragarriko zigun horrelakorik orain dela bost urte? Eta euskararekin, zer? Bada, argi asko, irabazten atera da gure hizkuntza. Nola? Behin baino gehiagotan aldarrikatu dudan formulari eutsiz: euskarak, bizirik iraungo badu, beste hizkuntza maioritarioetarako itzulpenaren laguntza behar du.

Paperezko euskarrietan, bi hizkuntzak bi argitalpen behar ditu, kostuak, gutxienez, biderkatuz. Digitalekoetan, berriz, kostua itzulpenarekin bakarrik gehitzen da, argitalpen bakarra baita kaleratzen dena. Mundu osotik irakur dakioke edozein ikerle-egile euskalduni, euskaraz idatzi duen arren. *Euskonews & Media*-k itzuli egiten dio artikulua, espainiera, frantsesa edota ingelesez eduki lezakeen irakurleen kopurua ziurtatuz.

*Euskonews & Media*-k aldi berri bati ekiten dion une honetan, dena den, baditu oraindik bete ez dituen esparruak. Horietako bat, ez txikiena, herrietako kultura mugimenduaz ari litekeena da. Edozein hiriren kulturabizitza behetik gorako norabidean egiten da sendo, eta horren islapena falta zaigu oraindik gure astekarian. Lan lerro berezia ireki nahi genuke alde horretatik, herrietako kultura adierazpenei toki emanez. Agian, GOIENKARIAren gisako aldizkariekin lankidetza bultzatuz lor genezake xede hori.

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Raxoirekin gauzak hobetuko dira abertzaleendako?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Iñaki Iturbe (Diseinua) Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Podiuma**

# Markel Irizar |TXIRRINDULARIA|

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Oñatin eman zituen lehen pedalkadak, azken hiru urteotan Bizkaiko Olarra-Consultec taldean ibili da, eta datorren denboraldirako Euskaltel-ek fitxatu du. Markel Irizar Oñatiko txirrindulariak amaitzear den denboraldiari eta etorkizunari buruz egin digu berba.**



LEIRE KORTABARRIA
Txirrindulari oñatiarra Euskaltel-ekin jardungo du datorren denboraldian.

**Denboraldia amaitzear da. Nola joan da aurtengoa?**
Hamabost egun baino ez dira falta amaitzeko. Emaitzak uste baino hobeak izan dira eta gustura nago. Gipuzkoako elite mailako txapelketa irabazi nuen eta beste 17 lasterketatan lehenengo hamarren artean sailkatu naiz. Eta abuztuan bi karrera nahiko eskura izan ditut.

**Gipuzkoako elite mailako txapeldun izan zara. Hori izan da lortu duzun garaipen garrantzitsuena?**
Bai, hori izan da. Euskadiko Txapelketan, erlojukontrakoan, oso ondo nindoan, baina azkenean ez nuen irabazi. Kantabriako Itzulian ere postu onean amaitu nuen, eta poztekoa izan zen.

**Aurtengo denboraldiko lasterketa gustukoena zein izan da?**
Gipuzkoako Txapelketa. Batetik, gurasoen zilarrezko ezteiak zirelako, eta bestetik, gaixotasunetik atera nintzenetik egiten nuen bigarren lasterketa zelako.

**Olarra-Consultec taldetik Euskaltel-era zoaz.**
Kontratua sinatzea falta zait. Izan ere, gauzak atzeratu egin dira hiru liderren fitxaketa luzatu egin delako, baina ezezkorik ez dut jaso eta aurki izango delakoan nago. Ilusioz joango naiz, baina pena daukat orain arte nirekin taldean egon direnek –eta ni beste merezi dutenek, Atxak, esaterako– aukera bera ez dutelako profesionaletara pasatzeko, eta nork bere bidetik jarraitu behar du.

> **"Taldekide izan ditudanek aukera bera ez izateak pena ematen dit"**

> **"Osasunak errespetatzen banau, naizena erakutsiko dut errepidean"**

**Euskaltel-ek lortutako oihartzuna ikusita, nola ikusten duzu denboraldia?**
Talde indartsua da txirrindulari eta aurrekontu aldetik. Tourrean itxura polita eman du aurten, Iban Mayo eta Aimar Zubeldiarekin, besteak beste. Mayo Tourra irabazteko gauza dela uste dut. Ilusiorik ez da falta eta euskaldunek ilusio hori indartu egiten dute..

**Hori taldeari dagokionez. Eta zuri dagokizunez?**
Profesionaletako lehen urtea izanik, helburu garbirik gabe hasiko naiz. Badaukat zer ikasia, baita norengandik eta non ikasia ere. Taldekideei eta zuzendariei naizena erakusten saiatuko naiz errepidean. Betiere, osasunak errespetatzen nauen neurrian, hori da-eta dudan beldurrik handiena. Bigarren mailako lasterketetan jardungo dut, karrera garrantzitsuenak beteranoentzat eta taldekide onenentzat izaten dira-eta .

**Once-Eroski taldea desagertzeak zein eragin izango du Euskaltel-en?**
Txirrindulari asko langabezian geratuz gero, *cachet*-a jaitsi egingo da, eta hori beti da arriskutsua maila baxuagoko txirrindulariontzat. Bestalde, pena da horrelako talde historiko bat desagertzea.




## Javier Ramírez Gatzagan txapeldun

Joan zen domekan jokatu zen, Leintz Gatzagan, Dorletako Ama txirrindulari lasterketaren 25. aldia. Helmugan azkarrena Avila Rojas taldeko Javier Ramírez izan zen. Martiínez taldekideari minutu eta 11 segundoko aldea atera zion. Euskaldunen artean lehenengoa Aitor Hernández ermuarra izan zen; bosgarren izan zen Aitor.

**Kirolabur**

### ESKUBALOIA/OÑATI

Oñatiko Zubikoa kiroldegian 26. Eskubaloi Txapelketa jokatuko da aurtengo San Migel jaietan. Lehenengo maila nazionalean diharduten lau taldek hartuko dute parte torneoan: JD Arrate, Pulpo KE, Aloña Mendi KE eta ITE Hondarribia taldeek. Lehenengo finalerdia Eibarko eta Zumaiako taldeek jokatuko dute bihar zapatua, arratsaldeko 17:00etan. Bigarrenean Oñatiko taldeak Hondarribikoaren aurka jardungo du, domekan, eguerdiko 12:00etan. Finala datorren asteburuan izango da: irailaren 21ean, eguerdiko 12:15ean. Aurrez, goizeko 10:30ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatuko da.

### XAKEA/BERGARA

Nazioarteko 100 xake jokalari inguru elkartuko dira datorren domekan Bergarako Ipintza institutuan. Bergara Hiria txapelketa jokatuko dute. Partaideen artean nazioarteko zenbait maisu izango da eta sari nagusia irabazteko faboritoak Mirzoev ukraniarra, Conquest britainiarra, holandar nazionalitatea duen Cifuentes eta Errusiako Ubilava dira. Mario Gomez eta Felix Izeta euskaldunek ere sailkapenean goiko postuetan geratzeko aukerak dituzte. Bihar, zapatua, berriz, Bergarako Xake Taldeak gonbidapena egin nahi die xake jokalari gaztetxoei txapelketa irekian parte hartzeko. Horren helburua xakearekiko zaletasuna bultzatzea da.

### FUTBOLA/DEBAGOIENA

Reala Txapeldunen Ligako partiduak jokatzen hasiko da aurki. Lehenengo norgehiagoka Anoetan izango du, Olympiakos taldearen aurka, irailaren 17an. Ondoren, hilaren 30ean, Turkiako Istanbul hirian jokatuko du Galatasaray ekipoaren kontra. Hala, partidu horretara talde txuri-urdina animatzera joateko bidaia bereziak eskaini dituzte hainbat agentziak. Bidaia aste barruan izanik, Arrasateko Bonba eta Txuri-Urdin zale taldeak ez dira Istanbulen izango. Bergarako Aranzabal zale taldeko kide batzuek, berriz, joateko asmoa dutela adierazi dute.

### ATLETISMOA/DEBAGOIENA

Kanpanzar Kobate Harrobia Atletismo Taldea aurkeztuko dute bihar, zapatua, 12:00etan, Zumarragako Argixao futbol zelaian. Taldean ibarreko atleta asko dago, baita Zumarragakoak eta Legazpikoak ere. Atletismo talde berria sortzeko ideia Oñatiko Aloña Mendiko Atletismo Saileko arduradunak, Javier Gómezek, izan zuen. Hasieran 20-25 atletaz osatutako taldea izan behar zuena 68 lagunekoa izatera iritsi da; horietatik 34 ibarrekoak dira. Taldeko kide izateko kirol mailak ez dauka garrantzirik.Taldearen helburua Gipuzkoan egiten diren herri lasterketetan talde moduan esku hartzea da.

**Masterra kudeaketa integralean eta kalitate, ingurumen eta prebentzio auditorietan**

Laneko arriskuak prebenitzeko erdi mailako teknikari titulazioa lortzen da.

**Programaren edukia**
- Kalitatea eta bikaintasuna gestioan.
- Ingurumen gestioa eta teknologia.
- Lan arriskuak prebenitzea. (PRL erdi mailako tekniko titulazioa)
- Gestioan sistema integratua.
- Antzeko teknikak : HHPP, auditoriak, ekonomikoa-finantzarioa…

| | |
|---|---|
| **Lekua:** | Gasteiz |
| **Iraupena:** | 650 ordu (400 ordu eskolan bertan) |
| **Noiz:** | 2003ko urritik 2004ko uztailera arte |
| **Ordutegia:** | Astelehenetik eguenera, 19:00etatik 22:00etara. |
| **Nori zuzendua:** | profesionalei eta tituludun berriei. |

Mutua La Previsora-ren barruan dauden enpresen profesionalek %10eko deskontua izango dute.

LAN-POLTSA ETA ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA.

ANTOLATZAILEA: DESLAN FORMACIÓN
LAGUNTZAILEA: La Previsora, Mutua La Previsora

**Informazioa eta inskripzioak:**
17:00etatik 20:00etara. Frantzia kalea 21, 1. ezk. A6 bulegoa Tel.: 945 253 405 GASTEIZ
E-posta: deslanformacion@deslanformacion.com / Web orria: www.deslanformacion.com

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



clinica Gipuzkoa

T a l d e   o s o a   e m a k u m e a r e n   e s k u r a

| | |
|---|---|
| Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia | Antonio Estomba |
| Menopausia | Fernando Cristóbal |
| Endoskopia ginekologikoa | Alfredo Otalora |
| Laguntza bidezko ugalketa | Jose M. Gómez |
| | Ainhoa Larrea |
| Titietako gaixotasunak | Domingo Murgiondo |
| Obstetrizia | Miguel Gabarain |
| Psikosexualitatea | Maria José Ruiz |
| Nerabezaroko ginekologia | Fatima Azkue |
| Hezur dentsitometria | J. Rodríguez |

# IDIOMASTER

**2003-2004 ikasturte hasiera: IRAILA**

**Ingelesa – Frantsesa – Alemana**

- **Jatorrizko irakasleak**
- **Talde txikiak**
- **Maila guztiak**
- **Gazte eta helduentzako hasiera ikastaroak**
- **Cambridge azterketarako prestakuntza abendurako eta ekainerako**
- **Ordutegi bereziak txandaka lan egiten dutenentzako eta dendarientzako**

Zatoz eta informa zaitez!

Otalora 29, behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 07 84 • idiomaster@euskalnet.net


Bizi ezazu
Vuelta
EROSKi
Grupo Eroski
EROSKi
Erosten Jakin

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko irailaren 12a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 12tik 19ra



# KOFRADIAK

## GURE JAKIEN IZEN ONAREN BABESLEAK

**Etzi, domeka, jaieguna izango da Bergaran; izan ere, San Martin Agirreren jaiak ospatzen ibiliko dira herri horretan. Baina domekan izango da ekitaldi berezi eta bitxi bat Bergaran: hain zuzen ere, Erreileno eta Tostoien Kofradiak, herri horretan sortutakoak, laugarren Kapitulua egingo du. Euskal Herriko, Estatuko eta Frantziako hogei bat kofradia etorriko direla espero dute Bergarako kofradeek; herriko kaleetan zehar martxa egingo dute, meza izango dute, desfilea, eta kapitulua, segidan. Tartean, ohorezko kofrade izendatuko dituzte hainbat meritugatik aukeratutako Bergarako lau lagun edo erakunde. Horren ondoren, elkarrekin bazkaltzera joango dira, eta, jakina, Bergarako erreileno eta tostoi gozoak dastatzeko aukera izango dute. Erreileno eta Tostoien Kofradiak Bergarako gozo tradizional horien izena defendatu eta zabaltzea du helburu, eta ibarrean dauden bi kofradietako bat da.** /15

AZALA: IÑAKI ITURBE




RENAULT Kontzesionarioa
**AUTOBERRI**
San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE




**HIRIAN, AUTORIK GABE eguna Europan IRAILAK 22**

**Zirkulazio eta garraio erakusketa.**
Irailaren 22tik 27ra Monterron kultura etxean

**Autobus urbanoaren bonifikazioa.**
Martitzenetik (irailak 16) zapatura (irailak 20), Arrasateko autobus urbanoa doakoa izango da bonoen erabileraren bitartez.
Astelehena, hilak 22, guztiz doakoa izango da.

**Irailak 20: Haur jaia**
Haur jaia Sebero Altuben: jokuak, puzgarriak, musika eta txontxongiloak.

**Irailak 22: Autorik gabeko eguna eta oinezkoen gunea.**
Zirkulazioa eten egingo dute, eta oinezkoen eta jaiaren gunea sortuko dute: Garibai etorbidean, Maalako biribilunetik Kontzezinoraino (aparkalekuak barne), eta Maisu Arano kalean eta Biteri etorbidean.
Garraio publikoa ibili ahal izango da, baita larrialdiak ere. Autobus urbanoak ordutegia zabalduko du.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

GASTRONOMIA/ **KOFRADIAK DEBAGOIENEAN**

# Erreilenoak, tostoiak eta antxoa

BERGARAKO ERREILENO ETA TOSTOIEN KOFRADIAK ETZI EGINGO DU IV. KAPITULUA; IBARREKO BI KOFRADIETAKO BAT DUGU

LEIRE KORTABARRIA

**Historian, gremioak izaten ziren ofizio bera zuten langileak elkartzeko taldeak. Gremioen lekukoa kofradiek hartu dute gaur egun; hori bai, ukitu gastronomikoarekin. Produktu bat defendatu eta promozionatzeko jaiotzen dira, eta beste kofradia batzuekin harremana izaten dute.**

Debagoiena oso ibar "gozozalea" dela esan dezakegu, izan ere, hemen bakarrik egiten diren goxo mota asko dago. Horietako produktu bat -elkarrekin osagarriak baitira- erreilenoak eta tostoiak dira. Produktu guztiz bergarar horiek defendatzeko eta ezagutzera emateko jaio zen, 2000. urteko irailean, Erreileno eta Tostoien Kofradia, "nahiz eta hainbat tokitan dagoeneko ezagunak diren", bertako kide Jesus Jauregik dioen bezala. Erreileno eta Tostoien Kofradiak etzi, domeka, egingo du bere laugarren batzar nagusi edo kapitulua, kofradien hizkeran.

Kapitulu hau aitzakia polita izango da Euskal Herriko eta kanpoko hainbat kofradia gastronomiko elkartzeko eta, euren aurrekari izan ziren gremioko kideen antzera, euren jardunaz eta norberak bere produktuez berba egiteko. "Hogei bat kofradia etorriko dira: Euskal Herriko batzuk, eta baita Estatuko eta Frantziakoak ere: Eibarko bakailaoa, Idiazabal gazta, Mantxako gazta, Baionako urdaiazpikoa...", diote kofradiako kideek. Guztiek kofradiakideen kapa eta txapela eramango dute soinean.



ERREILENO ETA TOSTOIEN KOFRADIA

**Kofradiakide jantzita, pilotalekutik klaratarren komenturaino ibilaldia egingo dute 20 kofradiak etzi Bergaran.**

**MIRESMENA ETA ESTIMUA**

Bergarako Erreileno eta Tostoien Kofradia 2000. urtean eratu zen, eta ordutik hona, kofradiakide kopuruari eutsi egin dio: gaur egun, 26 lagun dira. Debagoieneko kofradiarik ezagunena da hau. Bere helburuak dira Bergaran eta, oro har, ibar osoan eta hemendik kanpo ere ezagunak eta estimatuak diren erreileno eta tostoiak defendatzea eta sustatzea. Bestalde, kofradiek bata bestea gonbidatzen dute euren kapituluetara, eta elkarren produktuak ezagutzeko une bikaina da.

Hala ere, kofradia gastronomikoaren izatearen benetako zentzua da produktu jakin batekiko miresmena eta estimua aldarrikatzea. Kofradiak hedatuago daude, gurean baino, Euskal Herriko beste toki batzuetan: adibidez, badago Kofradia Gastronomikoen Federazio bat (FECOGA), Donostian, eta 38 kofradia dira horko kide, Bergarakoa barne.

Kofradiek ez dute federatu beharra, "baina gehienak federazioko kide dira", diosku Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiarteko presidenteak. Bazkide kopuruari dagokionez, Erreileno eta Tostoiena, beste batzuekin konparatuta, txikienetakoa da: "Kofradietako bazkide kopurua aldakorra izaten da. Normalena da 50-100 kide bitartean izatea". Eibarko bakailaoarenak, Deba ibarreko beste kofradia federatu bakarrak, 40 bat ditu.

**ANTXOAREN KOFRADIA**

Hala ere, Debagoienean badago beste kofradia bat, ez dagoena federatua, eta beharbada ez dena Bergarako Erreileno eta Tostoien kofradia bezain ezaguna, baina ibilbide luzea duena: Antxoaren Kofradia, hain zuzen ere.

"Orain 20 bat urte sortu genuen Ederlanen lanean genbiltzan lagun batzuek. 14 bat gara. Gure helburua da antxoarekiko estimua aitortzea eta, aitzakia horrekin, urtero bi kapitulu egin eta Euskal Herriko hainbat tokitan elkartzea eta bazkaltzea; jakina, antxoak janaz", azaltzen du taldeko kide Jose Mari Baltzategik. Kofradia, sortu, Debagoienean sortu zen, eta kide gehienak bertakoak dira -Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Bergarako kofradiakideak daude, baina baita Legazpi edo Donostiakoak ere. Antxoaren Kofradiak ere bere janzkera propioa du -udako kapitulurako, jantzi zuria erabiltzen dute; negukorako, urdina-, eta baita ereserkia ere.

Kofradia honen helburua da, batik bat, "elkarrekin urte askoan lan egin dugunok elkartzea", hortaz, ez dira beste kofradia batzuekin batzartzen. Pena izango da, hortaz, domekan ibarreko kofradia guztiak elkarrekin ikusteko aukerarik ez izatea.

## Kofradiak Euskal Herrian

Gremioak dira gaurko kofradien aurrekari. Hala ere, haiek lanarekin zerikusia bazuten, kofradiak elkarte gastronomiko-kulturalak dira. Eta Euskal Herrian gastronomiak halako pisua duenez, hemen arrakasta handia izan dute kofradiek. FECOGA federazioan 38 daude, baina kontuan hartu behar da guztiak ez daudela federatuta. Euskal Herriko produktu esanguratsu askok dute euren kofradia: adibidez, Debagoieneko bi kofradiotaz gain, badugu Idiazabalgo gaztaren kofradia; Bidasoako izokinarena; Eibarko bakailaoarena; Hendaiako aingirarena; Sarako usoarena; Baionako urdaiazpikoarena; Tolosako babarrunarena; Arabako patatarena; Senpereko amuarrainarena...

## Erreilenoen eta tostoien sekretua: osagaien kalitatea

Larrañaga, Mujika, Alzelai eta Raizabal gozotegiek ondo gorde dute jaki goxo hauen tradizioa. Datuen batzuen arabera, XIX. mendetik dator erreilenoen eta tostoien tradizioa Bergaran, eta Espainiako errege-erreginak Bergarara etorri ziren aldi batean ekarritako gozoak izan daitezkeela uste da. Kontuak kontu, gaur egun, guztiz bergararrak dira gozoki ezagun hauek. Migel, Santi eta Agustin Larrañaga gozogileek erakusten digute zelan egiten dituzten pastelok. "Erreilenoetarako, arrautza gorringoa erabiltzen da; hortaz, zuringoa aprobetxatzeko, tostoiak egiten dira", diosku Migelek. Eurek esaten diguten bezala, pastelok ez dira egiten zailak, baina, gauza guztiek bezalaxe, euren sekretua badute. Adibidez, oso garrantzitsua da tostoiak labean ordubetez edukitzea, ondo gogortu daitezen. Bestalde, Larrañaga gozotegikoek dioten bezala, "sekretua da kalitatezko osagaiak erabiltzea".



## "Defendatu eta promozionatu"

Kofradien zeregina eta kofradiakideek zin egiten duten helburua da aukeratu duten produktua "defendatzea eta promozionatzea". Promozionatzea, Erreileno eta Tostoien Kofradiako presidente Jesus Jauregik dioen bezala, da "mundu zabalean produktua ezagutzera ematea". Eta defendatzea da produktu hori gero eta hobea izan dadin lan egitea.

Ez da honakoa Bergarako erreileno eta tostoien kasua, baina, Bergarako kofradiak dioen bezala, "batzuetan, produktorearengandik defendatu behar izaten da produktua. Idiazabalgo gaztaren kofradiak, esate baterako, kontrolatu eta zaindu egiten du prozesua, egileak gero eta gazta hobea egin dezaten.

# Irailak 12-19

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### BERGARA

► **Debagoieneko AEK euskaltegiak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabaldu du. Deitu Arrasateko (943 77 03 69) edo Bergarako (943 76 05 18) AEKra.

### OÑATI

► **Kultura etxeko ikastaroetan** parte hartu dutenen lanen erakusketa zabalduko da datorren egubakoitzean, hilak 19, kultura etxean.

► **Gaizka Mena** marrazkilari arrasatearrak erakusketa zabalduko du gaztelekuan gaur, egubakoitza. Hilaren 20ra artean egongo da zabalik.

## ANTZERKIA

### BERGARA

► ***Tristeak kontsolatzeko makina*** umeendako antzerki lana eskainiko du Gorringo taldeak astelehenean, hilak 15, San Martin plazan, 19:00etan.

### OÑATI

► ***Victor Bevch*** antzezlana jokatuko du Vaiven taldeak datorren egubakoitzean, hilak 19, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► ***Azterkosta* erakusketa** egongo da Monterron kultura etxean, hilaren 21era bitartean. Astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara egongo da ikusteko aukera.

### BERGARA

► **Ageriko 30. Pintura Sariketako** margoen erakusketa egongo da etzitik aurrera, domeka, hilaren 21era bitartean. Kultura etxean egongo da.

► **Elisabet Eguren** margolari eibartarraren erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, irailaren 30era arte.

### BILBO

► **Jesus Mari Lazkano** margolari bergarararen antologia dago ikusgai BBK Fundazioaren kultura gelan, Elkano kaleko 20an, honako ordutegian: astelehenetik zapatura, 10:00-13:30 eta 17:00-21:00, eta domeka eta jaiegunetan, 10:00-13:30. Urriaren 4ra arte egongo da zabalik.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Odol ateratzeak** egingo dituzte irailaren 15ean, astelehena, osasun etxean, 16:15etik 20:00etara bitartean.

► **Mendi Astea** antolatu du Murrukixok, irailaren 22ra arte. Gaur, egubakoitza, diapositiba emanaldia egongo da, Kurtzebarri eskolan, 19:00etan; bihar, Kurtzebarriko gurutzea argituko dute, 00:00etan. Eta etzi, Kurtzebarri Eguna ospatuko dute. Irailaren 22ra arte, argazki erakusketa egongo da Pagaldai tabernan.

### ARRASATE

► **Bertso saioa** egongo da etzi, domeka, Arima-Zuri plazan, 12:00etan. Aitor Mendiluze eta Arkaitz Goikoetxea bertsolariek hartuko dute parte.

► **Gaztetxeko liburutegia** inauguratuko dute bihar, zapatua, 19:00etan. Bi ekitaldi egongo dira: Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik* poesia errezitaldi eta ikus-entzunezko saioa, eta Eneko Barberena eta Manex Ugalderen *Kulturisten kofradia* saioa.

► **Arantzazura erromesaldia** irtengo da Arrasatetik etzi, domeka.

### BERGARA

► **Ipintza Institutuak** ikasturte berriaren aurkezpen ekitaldia egingo du gaur, egubakoitza, honako egun eta orduetan: DBHko 1. mailakoek, 11:00etan; 2. mailakoek, 11:15ean; 3.ekoek, 11:30ean; eta 4. mailakoek, 11:45ean. Bestalde, Batxilergoko 1. mailakoek 11:00etan izango dute aurkezpena, eta 2. mailakoek, 11:30ean.

► **Jabi Lazkano presoaren** aldeko agerraldia egingo dute gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 19:30ean.

► ***Berria* egunkariaren aldeko akzioak** eta materiala salgai jarriko dituzte bihar, zapatua, San Martin plazan, 10:30-14:30. Irailaren 16an, martitzena, leku berean, 18:00etatik 20:00etara egongo dira.

► **Paulo Elkoro presoa** gose-greban dagoela-eta, bere eskubideak aldarrikatzeko hainbat ekintza egingo dituzte. Martitzenean, hilak 16, prentsaurrea egingo dute Munibe plazan; estraditatu ez dezaten eskatzeko postalak eskura daitezke herriko tabernetan; eta elkarretaratzeak egongo dira egunero, San Martin plazan, 19:30ean.

### OÑATI

► **Oñatiko jaietarako Koadrilen Arteko Lehiaketa** deitu du Ixuketan gazte taldeak, irailaren 29an. Taldeko kideek 15 urtetik gorakoak izan beharko dute; eta irailaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, Pako edo Aloña tabernetan edo Laixanen.

► **Natura ibilbide gidatuak** antolatu ditu Natur Eskolak datozen egunotarako. Bihar, zapatua, *Basoa eta ikazkintza* delako irteera egingo dute, eta etzi, domeka, *Arantzazu: erreka eta kobazuloak* delakoa. Informazioa jasotzeko, deitu 943 78 34 53ra.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Bioenergetika, chi-kung,** autoestimu eta harreman taldea eta zinema eta mitologia tailerrak antolatu ditu Sadhana yoga eta psikoterapia elkarteak. Informazio gehiagorako edo izena emateko, deitu 616 96 57 95 zenbakira.

► **Beinke-Loramendi** dantza ikastaroa dago abian, San Migeletarako. Egubakoitzero izango dira eskolak, Kurtzebarri eskolan, 19:30ean. Edozeinek har dezake parte.

### ARRASATE

► ***Tai chi* ikastaroa** egongo da irailean, San Viator ikastolaren egoitzan, martitzenero eta eguenero, 20:30etik 21:30era. Argibide gehiagorako eta izena emateko, deitu 679 64 24 91 telefono zenbakira.

► **Saloiko dantza, eskulan, joskintza eta orratz-lan ikastaroak** antolatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak. Horrez gain, Arabara txangoa ere antolatu dute. Ekintzotarako izena emateko, joan elkartearen egoitzara, Pablo Uranga kalera, irailaren 26a baino lehen.

### BERGARA

► **Dantza solte ikastaroa** antolatu du Moises Azpiazu taldeak. 5-15 urte artekoei dago zuzenduta. Irailaren 17an hasiko da, hau da, datorren eguaztenean. Argibide gehiagorako: 676 52 03 68.

► **Trikiti Eskola** abian egongo da urritik aurrera, Arrizuriaga jauregian. Argibideetarako, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara.

### ESKORIATZA

► **Margo ikastaroa** antolatu du Udalak urritik aurrera, eta izena emateko epea irailaren 25ean bukatuko da. Horretarako, joan kultura etxera edo deitu 943 71 46 88 telefonora.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Sole N'Kulu-Bulaite Band** taldeak kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, irailak 19, Jai-Zale tabernan, 19:30ean. Sarrera, doan.

### BERGARA

► **Naroa Enekotegi** mezzosopranoak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoi-



► JAIAK

### KURTZEBARRI EGUNA OSPATUKO DUTE ETZI, 75. URTEZ

Debagoieneko mendizale guztiek gozatzeko aukera izango dute etzi, domeka; izan ere, Kurtzebarri Eguna dator. 75. aldia izango da aurtengoa. Aretxabaletako Murrukixo mendi taldeak honako egitaraua antolatu du: 09:00etan, Kurtzebarrira irteera, Aretxabaletako plazatik; 11:00etan, meza entzungo dute, eta segidan, txorizo, gazta eta xanpain dastatzea egongo da, txistulariek lagunduta; 14:00etan, herri bazkaria egingo dute, Elixabarrin; segidan, dantzaldia, Madinarekin. Taberna zerbitzua egongo da. Ziur aretxabaletar eta debagoiendar ugari elkartuko direla Kurtzebarrin egun horretan, batez ere eguraldiak lagun egiten badu.

**Non:** Kurtzebarrin. **Noiz:** etzi, irailak 14, domeka. **Ordua:** 09:00etan abiatuko da mendi ibilaldia Aretxabaletatik.

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA



## BARAZKI ETA FRUITU AZOKA SAN MARTIN JAIETAN

San Martin Agirre jaiak ospatuko dituzte Bergaran gaurtik hasita, egubakoitza, hilaren 16ra arte. Hamaika ekitaldi egongo dira: horien artean, barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa eta azoka ezaguna, bihar, zapatua, San Martin plazan, 10:00etan. Beste ekitaldi gastronomiko batzuk ere egongo dira: esaterako, Bergarako odolosteen eta txahal-saihetsen dastatzea eta okela gisatu lehiaketa.

tza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

► **Su ta Gar** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Kañeria 13 eta Des-Kontrol** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, San Martin plazan, 23:00etan.

► **Techno estiloko jaialdia** egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte.

► **Disko festa** egongo da datorren martitzenean, hilak 16, Biduri Sound disko jartzailearen eskutik, San Martin plazan, 19:15ean.

## LEHIAKETAK

### OÑATI

► **Oñatiko jaietako pegatina** aukeratzeko lehiaketa deitu du Laixanek. Euskarazko lelo original baten bila dabiltza. Bi modutara har dezakezue parte: batetik, tabernetan dauden orriak bete eta kaxetan sartuta; eta bestetik, Laixan elkartearen helbidera (*laixan@topagunea.org*) e-posta bat bidalita. Mugaeguna: irailaren 22a.

## JAIAK

### ARRASATE

► **Uribarri-Erguingo jaiak** ospatuko dituzte gaur eta bihar. Meza, Uribarriko parrokian; afaria, auzotarrendako txikiteoa, umeendako jolasak, mus txapelketa… eta beste hainbat ekintza egongo dira.

### BERGARA

► **Erreileno eta Tostoien Kofradiak** IV. kapitulua egingo du etzi, domeka. 09:30ean, gonbidatutako kofradiei ongietorria egingo diete, pilotalekuan; 10:45ean, herriko kaleetan martxa egingo dute; 11:00etan, meza egongo da; 11:45ean, desfilea; eta 12:15ean, udaletxean, batzarra.

► **Xakearen Astea** antolatu du Bergarako Xake Taldeak, eta honako ekintzak egongo dira: gaur, egubakoitza, *blitz*-eko *match* txapelketa, Zabalotegi dorreko egoitzan, 19:00etan; bihar, zapatua, Bergarako Hiria xake torneo irekia, eskola eta gazte mailakoa, Ipintza II institutuan, 10:00etan; eta etzi, domeka, nazioarteko Bergarako Hiria xake txapelketa irekia, parte hartu nahi duten guztiendako. Hori ere Ipintza II-an izango da, 10:00etan.

### OÑATI

► **Haurren Eguna** izango da etzi, domeka, San Migel jaiak hasteko. 09:00etan, goizeresia izango da; hortik aurrera, parte hartzen duten dantza taldeek kalejirak eta emanaldiak egingo dituzte, egun osoan.

# Zinema

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Femme fatale***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Martitzena: 19:30, 22:15.

***Simbad***
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Identidad***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Abajo el amor***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Diablo***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Fiesta***
Egunero: 17:00.

***Papá canguro***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Escapando de la oscuridad***
Egunero: 20:00, 22:30.

***American Pie 3: menuda boda***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***La puerta del tiempo***
Egunero: 17:15.

***Diablo***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Descongélate***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***En un lugar de África***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Se montó la gorda***
Egunero: 17:15, 22:30.

***Femme fatale***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Bienvenidos a Belleville***
Egunero: 20:00.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Identidad***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Vidas furtivas***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El buen ladrón***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Descongélate***
Egunero: 17:30.

***Dos tipos duros***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Respiro***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Las mujeres tienen curvas (J.B.A.)***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***En un lugar de África***
Egunero: 20:00, 22:30.

■ STER ZINEMAK

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:45.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

***Papá canguro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:30.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:20.

***El buen ladrón***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:20, 00:45.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:20.

***Abajo el amor***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 20:25, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:25, 22:45.

***Escapando de la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:05, 22:05, 00:30.
Domeka: 16:10, 18:10, 20:05, 22:05.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:15, 22:10, 01:00.
Domeka: 16:30, 19:15, 22:10.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:25, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:25.

***American pie 3: menuda boda***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.
Domeka: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***Doraemon***
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:00.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***28 días después***
Egubakoitza eta zapatua: 17:55, 22:15.
Domeka: 12:15, 17:55, 22:15.

***Escapando de la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Simbad: la leyenda de los siete mares***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35.

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 20:35, 22:35.

***Papá canguro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

***Diablo***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:40, 21:40, 00:25.
Domeka: 12:15, 15:55, 18:40, 21:40.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***American pie 3: menuda boda***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:25, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Abajo el amor***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***Enemigos***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:25, 00:30.
Domeka: 12:15, 20:30, 22:25.

***Terminator 3***
Egubakoitza eta zapatua: 17:55, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:55, 22:30.

***Última llamada***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 20:00, 22:00.

***Negocios sucios***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 20:40, 00:40.
Domeka: 15:40, 20:40.

***Los rugrats***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:20.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:20.

***Boat trip***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 20:15, 00:30.
Domeka: 12:15, 20:15.

***Doraemon***
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.
Astelehena, ikuslearen eguna.

***En un lugar de África:* ●●● | *Femme fatale:* ●● |**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### TIEMPOS MODERNOS

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ZUZENDARIA:** Charles Chaplin.
**AKTOREAK:** Charles Chaplin, Paulette Goddard.

Duela hilabete batzuk, Charles Chaplin-en *El gran dictador* filmaren berrestreinatzeari tarte bat egin genion zinemari eskaintzen diogun txoko honetan. Oraingoan, zinemagile handi horren *Tiempos modernos* daukagu gure pantailetan eta benetan ohorea da Chaplini beste tarte bat egitea. Chaplin artista handia zen, eta, ikuslearen barrea eragiteaz gain, bere lan guztietan munduaren eta bizitzaren begirada zorrotza eta argia ematen zuen. Horrexegatik, hasieran hain barregarria izan zitekeen komikoa azkenean mandatarien amesgaizto bihurtu zen. *El gran dictador*, *Monsieur Verdoux* eta *Tiempos modernos* filmek argi eta garbi adierazten dute artista horrek munduari buruz zuen ikuspegia. Eta nire ustez, behintzat, *Tiempos modernos*-ekin Chaplinek gizakiaren muina eta garbitasuna defendatzen ditu gainbeheran dabilen gizarte baten aurrean.

Filma egiteko, denboraz kanpo ziruditen metodoak erabili zituen. 1936. urtean, soinudun zinema ondo ezarrita zegoenean, oso ausarta izan zen ia hitzik gabeko film bat egitea. *Tiempos modernos*-ek badu soinua: musika eta zaratak oso ondo erabiltzen ditu, baina hitzari oso tarte txikia uzten dio. Chaplinek zinema mutuko teknikak, gag-ak (lantegiko katean eta tabernari aritzen den eszenak zoragarriak dira) eta interpretatzeko modua erabili zituen bere garaiari begirada emateko (teknologia berriak, langilearen esplotazioa, gizarteko gatazkak...), eta betiko iraungo duen filma lortu zuen. Barrearen bitartez eta serioegi jarri barik, nahiz sentimenduzko tarteak ondo erabili ere, Charlot arlote pikaro eta maitagarriaren eskuetan, bizitzak eta gizarteak jartzen dizkigun zangotraben aurrean gizakiaren defentsa egiten du. Eta filmaren bukaeran ikusten den moduan, garai latzetan ilusioari eta kemenari eusteko aldarrikapen zirraragarria egiten du. Filmaren estreinalditik 67 urte pasatu badira ere, duen mezuagatik eta barre eragiteko mantentzen duen ahalmenagatik oso atsegingarria da Chaplinen lan bikain hau pantaila handi batean ikustea.



ANTONIO ZABALA

## ESKER ONA

### Esperanza Ribera Etxeberria



Aretxabaletan hil zen
2003ko abuztuaren 6an,
93 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei, samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eta, bereziki, bere gaixoaldian lagun egin zeniotenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Jose Tejada Navarro



Bergaran hil zen
2003ko irailaren 5ean,
71 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Jesus Iribecampos Okina



Arrasaten hil zen
2003ko irailaren 7an,
86 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Jose Luis Iribecampos Garaizabal



Aretxabaletan hil zen
2003ko irailaren 3an,
70 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Iñaki Lazpiur Agirrebeña



Bergaran hil zen
2003ko irailaren 2an,
42 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Prudencio Mujika Telleria



Bergaran hil zen
2003ko uztailaren 31n,
59 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKELA

### Maritxu Igartua Kortabarria



Bergaran hil zen
2003ko irailaren 9an,
82 urte zituela.

*Mila esker danagaittik.*
*Musu haundi bat eta betirarte.*

*Klotilde, Karmen, Juanita, Pili, Ramiro, Arantxa, Juan, Jon, Mikel, Uxue, Gorka eta Lorea.*

## URTEURRENA

### Pedro Romaratezabala Badiola

*Jesusita Rementeriaren senarra*



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Boni Díez



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 14,
11:30ean,
Aretxabaletako Parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Juan Kruz Bengoa Azkargorta



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
10:30ean,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Antonia Arregi Ereño



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
10:30ean,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Mari Kruz Irureta Ibarbia



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Maximo Zangitu Gallastegi



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Roke Zubizarreta Lete



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

### Margarita Larzanguren Unamuno



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
12:00etan,
Arrasateko Gesalibarko elizan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## AIPAGARRI

### Xabier Gómez



ESKORIATZA

Sei urtez Eskoriatzako parroko izan ondoren, Salamancara joan da Xabier Gómez azkoitiarra. Hori dela eta, agur beroa egin zioten herritarrek aurreko domekan. Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina ere han izan zen. Meza egin zuten, eta ondoren Xabierren omenezko bazkaria.

### Jose Angel Fernández



ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteko presidente berria dugu Jose Angel Fernández; horixe erabaki zuen AKEk, urteko batzar orokorrean. Urtetan jardun du Fernándezek kirol elkarteko batzordean lanean, eta orain, Tomas Ormaetxek zuzendaritzan lagatako tokia beteko du.

### Tomas Larrañaga



ANTZUOLA

Ordiziako Euskal Jaien barruan urtero egiten den azokan, lehen saria eskuratu zuen Lapatza baserriko Tomas Larrañagak, barazki ekologikoen lehiaketan. Antzuolako Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek ere hartu zuen parte, fruten lehiaketan. Epaimahaiak bigarren saria eman zion Kontxiri.

## HILDAKOAK

**Jabier Iturbe Álvarez.** Aretxabaletan, abuztuaren 12an. 60 urte.
**Mari Carmen Salaberria Alberro.** Arrasaten, 13an. 74 urte.
**Jose Loiti Laskurain.** Bergaran, abuztuaren 13an. 88 urte.
**Rufina Pellejero López.** Oñatin, abuztuaren 13an. 75 urte.
**Rosario Urizar Azpiazu.** Arrasaten, abuztuaren 14an. 75 urte.
**Sabina Etxebarria Goenaga.** Arrasaten, 15ean. 84 urte.
**Jaime Zubialdea Zabala.** Arrasaten, abuztuaren 15ean. 86 urte.
**Margarita Lakiniana Bilbao.** Bergaran, 15ean. 78 urte.
**Alejandra Selis Fernández.** Arrasaten, abuztuaren 16an. 86 urte.
**Ignacio Azkoitia López.** Aretxabaletan, abuztuaren 16an. 85 urte.
**Juan Beitia Uribe.** Arrasaten, abuztuaren 17an. 90 urte.
**Iñaki Freire Urteaga.** Oñatin, abuztuaren 18an. 31 urte.
**Pedro Maria Paternain Suberbiola.** Bergaran, 20an. 63 urte.
**Felix Ramos Peláez.** Oñatin, abuztuaren 20an. 71 urte.
**Presentacion Egaña Jauregialtzo.** Oñatin, 20an. 75 urte.
**Jabier Berasategi Arriola.** Bergaran, abuztuaren 21ean. 65 urte.
**Ander Rodríguez Urrestarazu.** Oñatin, 21ean. 12 urte.
**Maria Orobengoa Arregi.** Arrasaten, abuztuaren 23an. 94 urte.
**Rafael Zabaleta Barrutia.** Bergaran, abuztuaren 23an. 63 urte.
**Julio Arranz Regidor.** Aretxabaletan, abuztuaren 23an. 80 urte.
**Nicolasa Maskariano Gaztañaga.** Arrasaten, 24an. 90 urte.
**Garbiñe Jauregi Pikasarri.** Antzuolan, abuztuaren 24an. 50 urte.
**Felix Aperribai Unanue.** Arrasaten, abuztuaren 25ean. 77 urte.
**Juan Berrocal Vinagre.** Arrasaten, abuztuaren 25ean. 78 urte.
**Josefa Zabaleta Sodupe.** Bergaran, abuztuaren 25ean. 93 urte.
**Ignacio Bilbao Mijika.** Bergaran, abuztuaren 25ean. 84 urte.
**Rosalia Ruiz Remiro.** Arrasaten, abuztuaren 27an. 90 urte.
**Salvadora Gutiérrez Beato.** Arrasaten, abuztuaren 29an. 87 urte.
**Jose Luis Urrutia Anduaga.** Oñatin, abuztuaren 30ean. 78 urte.
**Maria Arrieta Ormazabal.** Arrasaten, abuztuaren 31n. 69 urte.
**Gregoria Ortueta Irasuegi.** Arrasaten, irailaren 3an. 88 urte.
**Alejandro Baladrón Llamas.** Arrasaten, irailaren 3an. 70 urte.
**Eugenio Beitia Oruna.** Arrasaten, irailaren 3an. 71 urte.
**Iñaki Lazpiur Agirrebeña.** Bergaran, irailaren 3an. 42 urte.
**Francisco Javier Ugarte Unamuno.** Bergaran, 3an. 54 urte.
**Jose Luis Iribecampos Garaizabal.** Aretxabaletan, 3an. 70 urte.
**Jose Tejada Navarro.** Bergaran, irailaren 5ean. 71 urte.
**Jesus Iribecampos Okina.** Arrasaten, irailaren 7an. 86 urte.
**Guillermo Iglesias De Lucas.** Arrasaten, irailaren 7an. 73 urte.
**Felipa Barrutia Laskurain.** Bergaran, irailaren 8an. 83 urte.
**Maria Dolores Igartua Kortabarria.** Bergaran, 9an. 82 urte.
**Angel Moiua Igartua.** Oñatin, irailaren 9an. 89 urte.
**Luis Zubizarreta Agirre.** Eskoriatzan, irailaren 10ean. 76 urte.

URTEURRENA

Luis
Altube Altuna

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 14an,
12:30ean, Arrasateko
San Juan Bautista parrokian.



*Elizkizunetara joangoa zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Ane Rodríguez Sodupe**
Aretxabaleta • Irailaren 1a • 2,835 Kg. • Gurasoak: **Leire Sodupe** (Elgoibar) eta **Mikel Rodríguez** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Alaitz Abasolo Etxabe**
Arrasate • Irailaren 1a • 3,170 Kg. • Gurasoak: **Jon Abasolo** (Arrasate) eta **Ainhoa Etxabe** (Arrasate). Argazkian, Alaitz gurasoekin.



**June Larreategi Agiriano**
Eskoriatza • Irailaren 2a • 3,350 Kg.• Gurasoak: **Josu Larreategi** (Murgia) eta **Jaione Agiriano** (Eskoriatza). Argazkian, umea aitarekin.



**Jokin Rodero Beitia**
Eskoriatza • Irailaren 3a • 3,790 Kg.• Gurasoak: **Dorleta Beitia** (Arrasate) eta **Miguel Rodero** (Arrasate). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Aner Iriarte Balerdi**
Arrasate • Irailaren 9a • 2,975 Kg.• Gurasoak: **Lierni Balerdi** (Arrasate) eta **Alberto Iriarte** (Arrasate). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Iker Elkorobarrutia Txintxurreta**
Arrasate • Abuztuaren 17a • 3,930 Kg.• Gurasoak: **Garbiñe** (Arrasate) eta **Juan Mari** (Arrasate). Argazkian, umea aitarekin.



**Joakina Zestau** elizondoarra eta **Jazinto Markiegi** bergararrak 50 urte beteko dituzte ezkonduta datorren martitzenean. 1953ko irailaren 16an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Elizondoko elizan. Domekan, hilak 14, ospatuko dituzte urrezko ezteiak familiarekin. Zorionak, bikote, eta ondo pasatu ezazuela, etxekoen partetik!



**Elena Elustondo** eta **Antonino Aizkorrialde** bergararrek 50 urte bete zituzten ezkonduta abuztuan. 1953ko abuztuaren 19an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Elena eta Antonino Bergarako San Pedro parrokian. Aurreko zapatuan, hilak 7, ospatu zituzten urrezko ezteiak bazkari batekin. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiaren partetik!



**Joseba Muxika** eta **Iñaki Askasibar** elgetarrek umore onez hartu zuten kuadrilakoek eginiko ezkon-despedida. Bertan egunean ezkondutako bikote baten gomendioak ere jaso zituzten. Uztarriarekin lotuta ibili ziren Iñaki eta Joseba, seguruenik, boda ostean izango duten bizitzaren erakusle-edo. Kuadrilakoen partez zorterik onena ezkontza egunean eta baita uztartuta bizi behar izango dituzten gainontzeko egunetan ere. Ez ahaztu ezkontza egunean kuadrilako mahaia mimatzea, e?



**Nerea Axpe** eta **Diego Soto** bihar, zapatua, ezkonduko dira Antzuolan. Ondoren, bazkaria egingo dute; ezkonbidaian, berriz, Keniara joango dira. Zorionak, etxeko guztien partetik, bereziki, Alazneren partetik



**Felix Elortza** eta **Mertxe Olabe**k 50 urte bete dituzte ezkonduta gaur, egubakoitza. 1953ko irailaren 12an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Arantzazun. Etzi, domeka, ospatuko dituzte Felixek eta Mertxek urrezko ezteiak senitartekoekin. Arantzazun meza izango dute eta ondoren bazkaria egingo dute. Zorionak, bikote, eta ondo pasa ezazuela, familiaren partetik!

**SARE INMO f3 inmobiliaria**
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- Erdialdean dago eta 66 m² ditu. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berrituta. Ondo dago. 174.293 euro /29 milioi pta.
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.
- 65 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea. Berrituta. Sotoa dauka.

**BERGARA**
- 60 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztuta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ETXEBIZITZAK ERRENTAN IKASLE ETA LANGILEENDAKO**

**KOROSTI INMOBILIARIA**
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
- 276.465,57 euro (46 milioi).

Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Zubiaurre. 60 m². Berrituta.
- Osintxun. 99 m². Ganbara, 24 m². Berrizteko.
- Osintxun. 90 m². Eguzkitsua.
- Osintxun. 73 m². Ganbararekin.

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegin, Osintxun bi baserri, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloan, Elosun, Zegaman, Asteasun, Bedoñan.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

**TURANDOT**
Lagunak gara

Lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi duzu?
Afariak, asteburuak, irteerak, eta abar antolatzen ditugu.
Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako.
Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Dei egiguzu 943 34 12 19 telefonora.
Informazio guztia bidaliko dizugu, konpromiso barik.

TURANDOT GIPUZKOA

**BERGARA**
ESPERIENTZIADUN SUKALDARIA ETA ZERBITZARIA BEHAR DITUGU. 943 76 15 59. BITTOR.

**ARRASATE**
ZERBITZARI LANETAN ESPERIENTZIA DUEN NESKA BEHAR DUGU, ARRATSALDEZ KAFETEGIAN LAN EGITEKO. 943 79 11 15

**BERGARA**
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN TABERNAN LAN EGITEKO. 943 76 53 64

**BERGARA**
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNA BATERAKO. 943 76 48 08

**ARETXABALETA**
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08

**ARRASATE**
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 606 75 51 33 686 50 06 92

**BERGARA**
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 943 76 72 38 943 76 71 22

**BERGARA**
TABERNARAKO ETA SUKALDERAKO LAGUN BANA BEHAR DIRA. 943 76 50 99

**ARRASATE**
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 943 79 00 34

**BERGARA**
TERRAZADUN TABERNA TRANSFERITZEKO GERTU. HERRI ERDIAN. 639 00 54 62

**ARRASATE**
IRAILAREN 20KO EGUERDIRAKO ETA URRIAREN 3KO GAUERAKO ESPERIENTZIADUN MAHAI-ZERBITZARIA BEHAR DA. 943 79 60 10

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Bolun etxebizitza salgai. 96 m2. 660 52 95 16 edo 670 09 73 11.

**Osintxu.** Baserria salgai, 9 hektareako lursail (pinuekin eta fruta-arbolekin) eta guzti. 943 76 00 96.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan Murubide kalean. Interesatuek Julian Elortzari deitu. 943 77 03 19.

**Aretxabaleta.** Herri erdian dagoen etxebizitza ematen da erretan. Hiru gela ditu eta guztiz jantzita dago. Berogailua eta igogailua ditu. 669 13 84 90.

**Aretxabaleta.** Mitarte kalean etxebizitza emango nuke errentan. Jantzita. 945 24 16 64 edo 653 01 63 77.

**Arrasate.** Erdiko kalean 75 m2-ko etxebizitza emango nuke errentan. 943 79 40 53 edo 635 70 33 34.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Lau logela, bi bainugela, berogailua eta igogailua. 649 16 87 15.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zigorrolan. 615 78 05 03.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Ikasleendako aproposa. Eskola Politeknikotik gertu. 635 75 83 30.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitate ondoan. Lau logela eta bi bainugela. Guztia kanpora begira. Txukun-txukun dago. 720 euro hilean. 678 53 82 48.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan. Ondo dago eta guztiz jantzita. Unibertsitatetik gertu. 626 96 68 45.

**Benidorm.** Apartamentua emango nuke errentan.Jantzita. Hondartzatik gertu, itsasoari begira. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Apartamentua hondartzatik gertu. Bi logela. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Aparkalekua eta igerilekua. 637 88 91 25.

**Bergara.** Matxiategin etxebizitza ematen da errentan. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 76 58 14.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza edo Aretxabaleta.** Lau ikaslerendako etxebizitza hartuko genuke errentan. 635 74 24 75.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan. 615 71 38 64.

**Donostia.** Antigua auzoan etxebizitza osatzeko ikasle bat behar da. 943 03 45 33.

**Donostia.** Lagun bat behar da ikasle etxebizitza osatzeko. Patricia edo Ekaitz. 679 27 51 32 edo 943 79 71 97.

**Eskoriatza** edo inguruan lagun batzuekin etxea osatuko nuke. 635 74 24 75.

### 106. BESTELAKOAK

**Bergara.** Logela bat alokatzen dut. 200 euro. 666 68 56 89.

**Bergara.** Logela bat errentan hartuko luke 24 urteko neska batek. 945 22 23 58.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Beheko auzoan garaje itxia salgai. Maripi. 943 78 60 09 edo 943 76 63 31.

**Aretxabaleta.** Araba etorbideko 27an garajea salduko nuke. Itxia, 20m². 943 79 69 83.

**Aretxabaleta.** Garajea salgai erdialdean. Telefonoa: 669 45 89 44.

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Murubide kalean. Interesatuek deitu Julian Elortzari. 943 77 03 19.

**Bergara.** Garageko plaza bat alokairuan Ibaiondo kalean. 943 76 33 54.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Masterrekan. 17 m². Deitu gauez. 943 76 05 62 edo 943 76 17 98.

**Bergara.** Garajea salgai Ibargarain. 943 76 72 17.

**Bergara.** Ozaetan garaje itxia salgai. 943 76 00 12.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen dut errentan Zerrajerako etxeetan. 626 66 84 27.

**ARRASATE**
**INGELES, ALEMANIERA, FRANTSES ETA ITALIERA IRAKASLEAK BEHAR DIRA.**
**AUTOMOBILA EDUKITZEA KONTUAN HARTUKO DUGU.**
**INTERESATUEK BIDALI CURRICULUMA HONAKO HELBIDERA:**
**recursos@cim-idiomas.com (Leireri zuzenduta)**

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** 36m². Komertziorako ere prestatuta. Leku ona. Prezio negoziagarria. Deitzeko 15:00/15:30 eta 22:00/22:30. 656 75 52 28.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Pertsona arduratsu bat behar da ordu batzuetan umeak zaintzeko. 943 71 20 57.

**Arrasate.** Andrea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 23 02.

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 23 02.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 16 94.

**Bergara.** Emakumea behar da goizez, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Poligonoan. 943 76 08 08.

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 660 72 54 78.

**Bergara.** Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko. 943 76 19 56.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 660 72 54 78.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Neska bat umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest. 652 73 14 44.

**Arrasate.** Neska gaztea umeak zaintzeko prest. 943 79 19 98 edo 678 22 55 42.

**Arrasate.** Neska gertu arratsaldez garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 676 55 15 46.

**Bergara.** 18 urteko neska arratsaldeetan edo asteburuetan lan egiteko prest. 943 76 07 34.

**Bergara.** Emakume bat etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. 943 53 26 77.

**Bergara.** Emakume batek umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 05 66.

**Bergara.** Emakume ekuatoriar batek etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zainduko lituzke. 620 15 62 49.

**Bergara.** Emakumea lanerako prest. 620 51 34 25.

**Bergara.** Etxeko lanak egingo nituzke, 09:00-15:00 tartean. 696 84 19 51.

**Bergara.** Nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan jardungo nuke. 615 71 38 64.

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 36 18.

**Debagoiena.** Neska arduratsuak bere burua eskaintzen du, orduka garbiketa lanak egiteko edo arratsaldez umeak zaintzeko. 943 71 53 74.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. Gauez ere geldi naiteke. 655 61 52 76.

**Emakumea** gertu tabernak, elkarteak, atariak eta bulegoak garbitzeko. 699 04 54 12.

### 403. BESTELAKOAK

**Bergara.** Martokuan, Zubiaurren edo Labegaraietan logela bat behar dut. Horren truke, pertsona nagusiren bat zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Maria. 943 76 08 07.

**AUTOETAN ESKAINTZA BEREZIAK**
- Focus 16 i, 0 Km............................2003
- Focus 16 i, 0 Km............................2003
- Focus TDCi, 0 Km..........................2003
- Focus TDdi, 0 Km..........................2003
- Fusion TDCi, 0 Km.........................2003
- Fiesta TDCi, 0 Km..........................2003
- Toyota HDJ-100 4x4 TDi................2000
- Audi Allroad 4x4 TDi......................2001
- Toyota Land-Cruiser 4x4 TDi..........2000
- Opel Vectra Wagon TDi...................1998

**MUGARRI**
943 79 75 64

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskolak ematen dira. Maila guztiak. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Elektrizitatea, Ingelesa. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Laguntza eskolak emango nituzke. Telefonoa: 635 70 88 88.

**Bergara.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu eskola partikularrak emateko. 943 76 47 82 edo 646 32 43 04.

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskolak emango nituzke. 669 33 95 93.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford Mondeo** 2.0 Ghia autoa salgai. 77.000 km. 1999 urtekoa. 9.000 euro. Telefonoak: 645 71 98 84 edo 649 11 83 46.

**Ford** Escort XR3 autoa salgai. Egoera ona. 800 euro. 635 71 04 55.

**KTM** 250 EXT motoa salduko nuke. 2000. urtekoa da. Galdetu Gorkarengatik. 646 05 74 78.

**Opel** Corsa GT autoa salgai. Matrikula: SS-AD. IAT (ITV) pasatu berri. Prezio interesgarria. 943 79 47 43.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Aker** arra salduko nuke. 3 urte ditu. Adar-motza, abere ona. 943 76 64 65.

**Txakurkumeak** salgai, euskal artzain arrazakoak. 60 euro. 943 76 12 93.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia** salgai. 120 baxu ditu. 943 79 53 36.

**PlayStation II-rako** jokoak salgai. CD bakoitza 2 euro eta DVD bakoitza 5 euro. Zerrenda eskatzeko: juegosabuenprecio@yahoo.es.

**Snowboard-erako** botak salgai. Burton markakoak. 45 1/2 zenbakia. Telefonoa: 679 21 35 07.

**Tronpeta** salgai. Telefonoa: 943 78 70 52.

### 802. EROSI

**Debagoiena.** Moto-kros zirkuitua egiteko lursaila erosiko nuke. 635 71 04 55.

**Txanponak** eta bankuko billeteak erosiko nituzke. Deituz gero, bila joateko gertu nago. Deitu arratsaldeko 17:00etatik aurrera. 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Eskumuturrekoa** galdu nuen Arrasaten. Zilarrezkoa. Balio sentimental handia. Aurkitu duenak dei dezala. 658 71 21 45.

## TELEBERRIAK

### Telebistako aurkezle izateko ikastaroa

*Telebista aurkezlea* izeneko ikastaroa antolatu du Pausoka ekoizpen etxeak, besteak beste *Goenkale* saioa ekoizten duenak. Telebista saio bat aurkeztea zer den azaldu eta irakatsiko da, batik bat, ikastaroan. Izan ere, telebista saio gehienek derrigorrezkoa dute aurkezlea, eta aurkezlea bera da telebista saio gehienen arrakastaren gakoetako bat. Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz emango da, hil honen 16an hasi eta urriaren 2ra arte. Sei saio izango dira, hiru ordukoak, martitzen eta eguenetan, 16:00etatik 19:00etara. Xabier Euzkitze eta Oscar Terol izango dira irakasleak. Honako gai hauek landuko dituzte: *Telebista aurkezlearen gakoa*, *Hizkuntzaren garrantzia*, *Aurkezpen klasikoa, Kamerarekin jolasean,* eta *Inprobisazioa*. Saioak praktikoak izango dira, eta kamera aurrean lan egingo da beti. Ikastaroa telebista aurkezle bat zer den eta nola lan egiten duen jakin nahi duten guztiei dago zuzendua. Prezioa 240 eurokoa da. Informazio zabalagoa 943 29 71 11 telefonoan edo *eskola@pausoka.com* posta elektronikoan.

### 'Berriak' albistegia iluntzean, egunero, Goiena Telebistan

Urritik aurrera estreinatuko den *parrilla* berria prestatzen ari dira Goiena Telebistan. Horregatik, albistegiak iluntzean bakarrik eskaintzen dabiltza irailean. *Berriak* saioa 20:00etan, 20:30ean eta 09:00etan, egunero ikus daiteke GOITBn, Julen Iriondok aurkeztua.

### 'Basetxea'-ren beste edizio bat hasiko da martitzenean

Hil honen 16an hasiko da ETB1en *Basetxea 45º* saio berria. *Basetxea* saioaren laugarren aldia izango da eta *45º* erantsi diote oraingoan, lehiakideek jasango duten bero handiarengatik. Izan ere, saioa Aragoiko Monegrosko basamortuan grabatu zuten joan zen uztailean. Zortzi lagun izango dira lehian, lau mutil eta beste lau neska, hain zuzen ere. Lehiakideen artean ez da debagoiendarrik. Aurkezlea, aurrekoan bezala, Julian Iantzi izango da.

**GOIATZ ARANA/** GOIENA TELEBISTAKO KAZETARIA

# "Debagoiendarrak zortekoak dira, oso zerbitzu ona eskaintzen dielako GOITBk"

ENEKO AZKARATE

**Urrian urtebete egingo du Goiena Telebistan. Aurretik, Teledonosti katean eta Euskadi Gaztean ibilia da. 24 urte ditu eta ormaiztegiarra da. GOITBn, *Astebete* saioan ikusi ahal izan duzue orain arte.**


XABIER URZELAI

**GOITBn kamera aurrean ikusi zaitugu azken denboraldian, besteak beste, *Astebete* saioan. Oraingoz, baina, beste zeregin batzuetan zabiltza. Zertan?**

Uztailean eta irailean albistegiak soilik egiten ditugu eta, bien bitartean, beste saio batzuk prestatzen dihardugu. Niri irudi zaharretan eta garai bateko kontuetan oinarritutako erreportaje saila egitea egokitu zait: *Mandio* izeneko saioa. Uste dut urrian emititzen hasiko garela.

**Zer nahiago, kameraren aurrean ala atzean lan egitea?**

Lan ezberdinak dira, eta biak ditut gustuko. Telebista txikiek denetik probatzeko aukera eskaintzen dute, eta hori aprobetxatu beharra dago.

**Ikasturte berrian saiorik aurkeztuko duzu GOITBn?**

*Astebete* aurkeztuko dut honetan ere.

**Aldaketarik izango da *Astebete* berrian?**

Horretan ari gara. Kendu, behar bada, ez dugu ezer kenduko, baina litekeena da tarte berriren bat gehitzea; egubakoitzean emitituko da aurrerantzean ere, eta asteburuari begira jartzeko ahalegin berezia egingo dugu.

**Dagoeneko urtebete daramazu GOITBn. Zer moduz?**

Oso gustura nago hemen. Ditugun baliabideak kontuan izanik, produktu txukuna egiten dugulakoan nago, eta langileen artean dugun giro onak asko balio du.

> *"Oso gustura nago. Baliabideak kontuan izanik, produktu txukuna egiten dugu GOITBn"*

> *"Itxurazko ezer eskaintzen ez dutelako telebista itzali beharra gertatu zait sarri"*

**Aurretik beste telebista batzuetan ibilia zara. Aldaketa handia izan da GOITB?**

Eginbeharrak ez dira askorik aldatu; hizkuntza bai, ordea. Teledonostin gaztelaniaz egiten da ia guztia, eta ni euskaraz erosoago sentitzen naiz; gaztelaniaz mintzatzeak, aldiz, lanak ematen dizkit askotan.

**Kanpotik, horrelakoa izatea espero zenuen GOITB?**

Ormaiztegira ez da oraindik heldu Goiena Telebista eta, beraz, GOITBn lanean hasi arte ez nuen ezagutzen, entzute hutsez baino. Orain, berriz, batzuetan faltan sumatzen dut etxean.

**Zein da, zure ustez, Goiena Telebistaren indar nagusia?**

Euskara. Horrelako proiektu bat aurrera ateratzea zaila da izatez, eta euskara hutsez aritzean, gainditu beharreko oztopoak handitu eta ugaritu egiten dira. Bestetik, eta askotan jendea kameretatik ihesi ibiltzen den arren, debagoiendarrak zortekoak direla pentsatzen dut maiz; izan ere, herritarrei eskaintzen diegun zerbitzu bat da gurea.

**Telebista asko ikusten duen horietakoa zara?**

Askotan ez dut telebista ikusteko nahi adina denbora ateratzen. Baina itxurazko ezer eskaintzen ez dutelako itzali beharra ere behin baino gehiagotan gertatu zait.

**Zelako saioak dituzu atsegin?**

Albistegiak, filmak, telesailak, lehiaketak… Era askotakoak.

**Eta zein ezin duzu ikusi ere egin?**

Prentsa arrosa jorratzen dutenak edota kaleko jendea bere bizipen pertsonalak lau haizeetara zabaltzera gonbidatzen dituztenak.

**Aurkezle bat aukeratzekotan, zein?**

Xabier Usabiaga asko gustatzen zait.

**Zein saio egingo zenuke gustura telebistan?**

Lehiakideak dituen saio batekin egingo nuke proba, adibidez.

**Eta Goiena Telebistan?**

Goiena Telebistan ere aukera berririk suertatuz gero, saiatuko ginateke. Bien bitartean, gustura asko jarraituko dut *Astebete* egiten.

## KAMERAAURREAN



*"Txapeldunen Ligako kanpoko partiduetara Gipuzkoako zaleak eraman nahi ditugu. Hiru partiduetarako txartel berezia atera nahi dugu".*

**Iñaki Otegi** / Realeko gerentea
"BERRIAK" (2003-09-11)



*"Arrasateren gaineko liburuan lau hizkuntza erabili ditugu. Gure nahia da Arrasate ezagutzera ematea, eta horretarako argazkiak eta testuak erabili ditugu".*

**Joxe Felix Diaz de Tuesta** / Euskara teknikaria
"BERRIAK" (2003-09-11)

## TELEBEGI/ Oihana Elorza

# Betiko lez, ia-ia

Euskadi Irratiak eta Radio Euskadik indartsu hasiko dute ikasturte berria. Uda ez dute atsedenerako soilik aprobetxatu eta aldaketa handiekin ekingo diote kurtso berriari. Erronka handiekin.

Telebistan, ordea, ez dirudi horrelakorik gertatuko denik. Zerbait aipatzekotan, programa batzuk hilaren lehen egunean hasi direla. Normalean erdiko bi asteetan aurkezten dira saioak eta irailaren bukaeran *parrilla* finkatzen da. Bestela, ezer gutxi. Oporretan izan diren aurkezle gehienak bueltatu dira eta ezagutzen ditugun programak ere martxan dira.

*Lo más plus* ikusi dut gaur. Errepikapena izan arren udan ere ikusi dudala aitortzen dut, baina ez nau aspertzen. Gerrak segitzen dituzten bi kazetari izan dira gaur platoan. Tartean, Iraken bizi dutenaz aritu dira, jakina. Han ere bero egin omen du, 45º askotan.

Bat-batean, *Basetxea* etorri zait burura, berriro.

# EHUNKIEN GAIKAKO BILKETA




Baietz etxean erabiltzen ez duzun eta lekua hartzen ari den arropa, oinetakoak, izarak, zinturoiak, mantak... eduki.

PLASTIKOZKO POLTSA ITXIETAN UTZI EHUNKIAK



Edukiontzi zurietan sartuz gero, etxean soberan dituzun ehunki horiek berrerabili edo birziklatzeko balioko dute. Horrez gain, ehun-industriaren kutsadura murrizten lagunduko duzu, ingurumenaren mesederako.

## BILKETA GUNEAK

| | |
|---|---|
| ARRASATE | • Muxibar plazan<br>• Kontzezino kalean<br>• Musakolako aparkalekuan |
| ESKORIATZA | • Gastañaduy kalean (estankoaren alboan) |
| ARETXABALETA | • Gernika plazan |
| LEINTZ-GATZAGA | • Dorletarako bidean (beste edukiontzien alboan) |
| OÑATI | • Olakua auzoko plazan<br>• Errementari plazan |
| BERGARA | • Zubiaurre kalean (zubiaren ondoan)<br>• Matxiategi poligonoan (hilerriko aparkalekuaren ondoan)<br>• Azokan (merkatuko sarreraren ondoan) |
| ANTZUOLA | • Aiherra kalean (Kultur Etxearen atzekaldean) |
| ELGETA | • Berraondokuan |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Tel. 943 79 33 99

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko irailaren 12a

*Atzeskua*

ENEKO AZKARATE

# Migel Sagastume/ Gozogilea eta soinu jotzailea

**Ohorezko kofrade izendatuko zaitu domekan Bergarako Erreileno eta Tostoien Kofradiak.**

Bai, eta ohore handia da niretako. Hala ere, nik esan diet ez dudala horrelakorik merezi, ni Raizabal gozotegian *agregatua* naizela. Etxekoek, andreak-eta bai, baina nik ez nuela merezi izendapen hori.

**Kontuak kontu, urte mordoa daramatzazu gozogintzan.**

Bai, 45 urte.

**Erreilenoak ala tostoiak, zer nahiago?**

Tostoiak, duda barik. Erreilenoak gozoegiak dira niretako, eta ni ez naiz hain gozozalea, nahiago ditut fruitu sikuak: intxaurrak, almendrak… Etxean denak dira ni baino gozozaleagoak. Gainera, tostoia da gaileta osoena eta osasuntsuena, ez dauka batere koiperik.

**Gogor samarra dela…**

Bai, hori bai, baina ahoan pixka bat edukiz gero, berehala urtzen da. Eta ardoarekin hartzeko oso egokia da. Txikitero koadrilak sarri etortzen dira; libra bat eroan eta ardoarekin batera hartzen dute, banderillaren ordez.

**Sekreturik bada erreileno eta tostoi onak egiteko?**

Ez. Formula jakinekoa da. Bergarakoak ospetsuak dira, Elorrioko *guardia zibilak* edo Markinako *kokoteak* diren moduan. Eta, ez pentsa, asko saltzen dira. Bergaran lau gozotegi daude, eta, hala ere, asko saltzen dira.

**Azken urteotan asko aldatu da pastelak egiteko modua?**

Ez. Amonaren errezeta berbera da.

**Eta tarta erotikoak?**

Horiek asko egiten ditugu, bai. Modak dira, txantxetarako. Semeak ekin zion horri. Lan handia ematen du, baina egiten ditugu jendeak eskatzen digulako.

**Jaiotzez eibartarra zara, Urki auzokoa, eta *Urkiko magoa* goitizenaz ere ezaguna. Zergatik magoa?**

Sasoi batean, Eibarko Salon Teatro-n dirua batzeko herri jaialdiak antolatzen ziren. Horretariko batean soinua jotzera joateko eskatu zidaten eta antolatzaileek *Mago de Urki* ipini zidaten.

**Akordeoiarekin plazarik plaza ibilitakoa zara.**

Eibarko Boleran eta Jai Alain jotzen nuen 1956an. 10 pezeta kobratzen zuten sarrera. Gero, Bergarako Ariznoan ere bai.

**Aurretik, baina, Kuban egon ziren, Tropicanan.**

Bai, amarekin joan nintzen eta 1950tik 1954ra arte egon nintzen. Cantinflas, Silvana Mangano, Hemingway… Artista asko zegoen orduan Kuban.

**Eta horietan ibili eta gero, ezkondu eta pastelak egitera.**

Erabat aldatu zitzaidan bizimodua. Gauez lan egiten ohituta nengoen. Orain jaikitzen naizen orduan, 04:00etan, oheratzen nintzen.



**"Erreilenoak gozoegiak dira niretako, eta ni ez naiz hain gozozalea"**

**"Tostoia da gaileta osoena eta osasuntsuena, ez dauka batere koiperik"**

**"1950tik 1954ra arte egon nintzen Kuban. Cantinflas, Silvana Mangano, Hemingway… Artista asko zegoen orduan han"**

► *Eibar / 72 urte / Bergarako Raizabal gozotegikoa*

## PIPERRAUTSA

### *Mariano*

Aitortzen dut, ni naiz lehena esaten gehiegi erreparatzen diogula Espainiari, gurea baino hobeto ezagutzen dugula hangoa, garrantzi handiegia ematen diegula hango izen propioei, berdin politiko, artista edo txorimaloei. Baina gaur Mariano hartuko dut hizpide, nik ere bai, barka.

Gizontxoak izendatu du Mariano bere ondorengo. Eta izendatu du demokratek egiten duten bezala, sudur puntan jarri zaiolako. Kaudilloaren atzamarrak ukituta jaio da Mariano lidergora, Borboiaren antzera, jatorrizko bekatupean. Ez oso kurioso.

Merituak gogorarazi dizkiote berehala: morroi leiala, grisa, langilea, arlo askotan ezjakina, solaskide ona… Hauteskundeak irabazten trebea ei da, baina ezin ahaztu laguntza handia izan zuela sozialistena. Errazago irabazten da lehiakideak galtzen duenean. Eta zatarra, benetan zatarra izan da Marianok Galizian, bere herrian, egin duena: txapapotea diruz estali du, eta horrekin kondenatu ditu galiziarrak, bere herritarrak, esklabo irautera denbora luzez.

Formetan biguna omen, Mariano gurea. Zerbait beharko du, aurreko petralak ozpindutakoa gozatu nahi badu. Espainia zaharrak ez du etorkizun garbirik, eta petralkeriak ez dio lagunduko bizikideak irabazten. Hauxe, laster, Marianoren ekarpena: gizontxoa ezkutatu egingo da. Nire osasunak eskertuko du.

Eta orain gu gurera, etxeko lanetara. Agur Maria. O no.

MIKEL IRIZAR



Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA